gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantza Batzordeak, 2012ko ekainaren 29an egindako bileran, Sozietateen gaineko Zergaren Erreformari buruzko Talde Txostengilearen ondorioen txostena onartu du. Txosten horri, Barne Araudiko 43. artikuluari jarraiki, Eusko Abertzaleak eta Talde Popularra batzarkide taldeek mantendu dituzten boto partikularrak erantsi zaizkio.

Horregatik, Barne Araudiko 43. artikuluari jarraiki, erabaki horren berri ematen zaio Batzar Nagusietako Mahaiari, eta eskatzen zaio, dagokion erabakiez gain, bidaltzeko txostena Foru Aldundiari eta Zerga Koordinaziorako Organoko gainerako kideei.

La Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Gipuzkoa, en su reunión celebrada el día 29 de junio de 2012, ha aprobado el informe con las conclusiones adoptadas en la Ponencia sobre la reforma del Impuesto de Sociedades. A dicho informe, de acuerdo con lo previsto en el artículo 43 del Reglamento, se han incorporado los votos particulares mantenidos por los Grupos Junteros Nacionalistas Vascos y Popular.

Por lo que, en cumplimiento de lo previsto en el artículo 43 del Reglamento, se traslada este Acuerdo a la Mesa de las Juntas Generales, solicitándole que, además de cuantas decisiones le competan, remita dicho informe a la Diputación Foral y al resto de miembros del Órgano de Coordinación Tributaria.

TXOSTENA

INFORME

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN ERREFORMARI BURUZKO TALDE TXOSTENGILEAREN ONDORIOAK

CONCLUSIONES DE LA PONENCIA SOBRE LA REFORMA DEL IMPUESTO DE SOCIEDADES

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

AURREKARIAK

I. SORRERA ETA ERAKETA

2. TALDE TXOSTENGILEA MARTXAN JARTZEA ETA LANERAKO PLANA ONARTZEA

3. EGINIKO BILKURAK

4. INFORMAZIO-ESKAERA

5. AGERRALDIAK BATZORDEAREN AURREAN

6. ONDORIOAK PRESTATZEKO METODOLOGIA

7. TXOSTENA EGITEKO EPEA

ANTECEDENTES

I. CREACIÓN Y CONSTITUCIÓN.

2. PUESTA EN MARCHA DE LA PONENCIA Y APROBACIÓN DE SU PLAN DE TRABAJO.

3. SESIONES CELEBRADAS.

4. SOLICITUD DE INFORMACIÓN.

5. CELEBRACIÓN DE COMPARECENCIAS ANTE LA COMISIÓN.

6.- METODOLOGÍA PARA LA ELABORACIÓN DE LAS CONCLUSIONES.

7. PLAZO PARA RENDIR EL INFORME

8. ONDORIOEN TXOSTENA

8.1. NAZIOARTEKO TESTUINGURUA

8.2. EUSKAL ERAKUNDEAK ETA ESKUMEN FISKALAK

8.3. GIPUZKOA

8.4. HARMONIZAZIOA

8.5. ENPRESA, ETA ABERASTASUNA SORTZEA

8.6. ENPRESEN FORMA JURIDIKO DESBERDINAK, ETA HAIEN TAMAINA

8.7. EGUNGO SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

8.8. GIPUZKOAKO SOZIETAEEN GAINEKO ZERGAREN BESTE ALDERDI BATZUK

8.9. ERREFORMAREN HELBURUA EPE LUZERA BEGIRA

8.10. ERREFORMAREN BESTE HELBURUAK

8.11. ERREFORMAREN ILDO NAGUSIAK

8.INFORME DE CONCLUSIONES

8.1. SOBRE EL CONTEXTO INTERNACIONAL

8.2 SOBRE LAS INSTITUCIONES VASCAS Y LAS COMPETENCIAS FISCALES

8.3. SOBRE GIPUZKOA

8.4. SOBRE LA ARMONIZACIÓN

8.5. SOBRE LA EMPRESA Y LA CREACIÓN DE RIQUEZA

8.6. SOBRE LAS DIFERENTES FORMAS JURÍDICAS DE LAS EMPRESAS

8.7. SOBRE EL ACTUAL IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

8.8. OTROS ASPECTOS DEL IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES DE GIPUZKOA.

8.9. OBJETIVO DE LA REFORMA A LARGO PLAZO.

8.10. SOBRE EL RESTO DE OBJETIVOS DE LA REFORMA

8.11. LÍNEAS GENERALES DE LA REFORMA

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

AURREKARIAK

SOZIETATE-ZERGAREN ALDAKETARI BURUZKO TALDE TXOSTENGILEAREN SORRERA, ERAKETA ETA JARDUERAK

I. Sorrera eta eraketa.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantza Batzordeak, 2011ko abenduaren 19ko bilkuran, erabaki zuen sozietate-zergaren aldaketari buruzko talde txostengile bat sortzea.

Bilkura hartan, Talde Txostengilearen helburua zehaztu zuten: sozietate-zergak Gipuzkoan oro har duen araudia aztertzea, eta zerga hori aldatzeko ardatz gisa baliagarriak izango diren ondorio batzuk prestatzea.

2012ko otsailaren 7an Talde Txostengilea eratzeko saioa egin zen. Batzarkide hauek osatuko zuten Talde Txostengilea:

Gurutze Baztarrika Galparsoro	**Bildu**
Itziar Agirre Berriotxoa	**EA-NV**
Rafaela Romero Pozo	**SV**
Juan Carlos Cano Aristoy	**GP**
Rebeka Ubera Aranzeta	**GM-Aralar**

Ganberan dauden aurrekarien arabera, ordezkoak ere izendatu zituzten:

Idoia Ormazabal Agirre	**Bildu**
Iñaki Egibar Larrañaga	**EA-NV**
Julio Astudillo Rodrigo	**SV**

Araudiko 43.5 artikuluaren arabera, **Talde Txostengileko** lehendakaria **Gurutze Baztarrika Galparsoro** izango zen, Ogasun eta Finantza

ANTECEDENTES

CREACIÓN, CONSTITUCIÓN Y ACTUACIONES DE LA PONENCIA SOBRE LA REFORMA DEL IMPUESTO DE SOCIEDADES.

I. Creación y constitución.

La Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Gipuzkoa, en su sesión celebrada el día **19 de diciembre de 2011**, acuerda la creación de la Ponencia *sobre la reforma del Impuesto de Sociedades.*

En dicha sesión queda determinado el objeto de la Ponencia, que consiste en analizar la regulación general del impuesto de sociedades de Gipuzkoa y formular unas conclusiones que sirvan de pared maestra para su reforma.

El día **7 de febrero de 2012** se celebra la sesión constitutiva de la Ponencia, que queda integrada por los siguientes Junteros y Junteras:

Gurutze Baztarrika Galparsoro	**Bildu**
Itziar Agirre Berriotxoa	**EA-NV**
Rafaela Romero Pozo	**SV**
Juan Carlos Cano Aristoy	**GP**
Rebeka Ubera Aranzeta	**GM-Aralar**

Asimismo, a tenor de los precedentes existentes en la Cámara se designan los siguientes suplentes:

Idoia Ormazabal Agirre	**Bildu**
Iñaki Egibar Larrañaga	**EA-NV**
Julio Astudillo Rodrigo	**SV**

En aplicación del artículo 43.5 del Reglamento la **PRESIDENCIA** de la Ponencia recae en **Dña. Gurutze Baztarrika Galparsoro** por serlo de la

Batzordeko lehendakaria izateagatik. Halaber, 43.7 artikuluaren arabera, **Idoia Cearreta Iturbe** arituko zen idazkari-lanetan, Ogasun eta Finantza Batzordeko legelaria izateagatik.

Comisión de Hacienda y Finanzas. Asimismo, en virtud de lo establecido en el artículo 43.7 actúa como secretaria de la Ponencia, **Dña. Idoia Cearreta Iturbe,** en su calidad de letrada de la Comisión de Hacienda y Finanzas.

Horrez gain, Foru Aldundiko zer ordezkarik eta nola hartuko zuten parte adostu zuten: Talde Txostengilearen lanetan hitzarekin baina botorik gabe hartuko zuten parte. Foru Aldundiak Talde Txostengilean izango zituen hiru ordezkariak hauek ziren:

Xabier Olano Jauregi, Ogasuneko zuzendari nagusia.
Miren Itziar Miner Canflanca, Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusia.

Isidro Esnaola Herrero, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuaren aholkularia.

Además, queda fijada la participación de los representantes de la Diputación foral en la Ponencia, cuyos integrantes toman parte en los trabajos de la ponencia con derecho a voz pero sin voto. Los tres representantes de la Diputación Foral en la Ponencia son:

Xabier Olano Jauregi jauna, Director General de Hacienda
Miren Itziar Miner Canflanca andrea, Directora General de Política Fiscal y Financiera
Isidro Esnaola Herrero jauna, Asesor de la Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas

2. Talde Txostengilea martxan jartzea eta lanerako plana onartzea.

Talde Txostengilea sortzeko Ogasun eta Finantza Batzordearen erabakiak funtzionatzeko oinarrizko metodologia bat ezarri zuen. 2012ko otsailaren 7ko bilkuran, eratze-bilkuran, metodologia hori hartu zen oinarri bezala, eta onartutako lanerako planak metodologia hori bereganatu eta garatu zuen. Erantsitako arau berrien artean bilkuren egutegi bat zegoen: martxoaren eta maiatzaren artean agerraldiak egingo ziren, eta ekaina ondorioak eztabaidatzeko eta onartzeko utziko zen.

2. Puesta en marcha de la Ponencia y aprobación de su Plan de trabajo.

La resolución de la Comisión de Hacienda y Finanzas por la que se crea la Ponencia establece una metodología básica de funcionamiento. En la sesión constitutiva de la Ponencia celebrada el día 7 de febrero de 2012 se toma como base dicha metodología y el Plan de Trabajo que se aprueba la incorpora y desarrolla. Entre las nuevas reglas agregadas, se encuentra la definición de un calendario de reuniones en el que se prevé que las comparecencias se celebrarán entre los meses de marzo y mayo, de tal manera que el mes de junio se reserve para el debate y aprobación de las conclusiones.

Dokumentu berean barne-funtzionamendurako arau batzuk ezarri ziren. Besteak beste, ordezkapenen eraentza zehaztu zen, agerraldiak egiteko prozedura ere bai, eta

En el mismo documento, se fijan una serie de reglas respecto al funcionamiento interno, precisando, entre otras cuestiones, el régimen de las sustituciones, el procedimiento para el

lehendakaria egon ezean nola ordeztu ere bai. Horrez gain, erabaki zen Talde Txostengilearen bilkurak publikoak izango zirela agerraldiak egiten zituztenean erakunde-ordezkari, gizarte-eragile edo adituek (deitutakoek), eta gainerako bilkurak ateak itxita egingo zirela.

desarrollo de las comparecencias o la forma de suplir a la Presidencia en caso de ausencia. También, se dispone que las sesiones de la Ponencia serán públicas cuando comparezcan ante la misma los representantes institucionales, agentes sociales o expertos convocados y que el resto de las sesiones se celebrarán a puerta cerrada.

3. Eginiko bilkurak.

Zk.	Data
12/01 -	2012ko otsailaren 7a
12/02 -	2012ko martxoaren 6a
12/03 -	2012ko martxoaren 20a
12/04 -	2012ko martxoaren 27a
12/05 -	2012ko apirilaren 3a
12/06 -	2012ko apirilaren 17a
12/07-	2012ko maiatzaren 8a
12/08-	2012ko maiatzaren 22a
13/09-	2012ko ekainaren 26a

3. Sesiones celebradas.

Nº	Fecha
12/01 -	7 de febrero de 2012
12/02 -	6 de marzo de 2012
12/03 -	20 de marzo de 2012
12/04 -	27 de marzo de 2012
12/05 -	3 de abril de 2012
12/06 -	17 de abril de 2012
12/07-	8 de mayo de 2012
12/08-	22 de mayo 2012
13/09-	26 de junio de 2012

4. Informazio-eskaera

Talde Txostengilea eratzeko bilkuran bertan erabaki zen txosten bat eskatzea Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari; txostenean, Sozietateen gaineko Zergaren 7/1996 Foru Arauak hura onartu zenean ezarritako helburuak bete ote dituen aztertu beharko zen, indarrean jarri zenetik egin zaizkion aldaketa guztiak kontuan hartuta, eta ea helburu horiek beharrezkoak eta egokiak ote ziren ekonomia-jarduerarako eta ogasun publikoarentzat. Aldi berean, adostu zen txostenak indarrean dagoen zergaren egitura eta eraentza berezien egitura aztertuko

4. Solicitud de información.

En la propia sesión de constitución de la Ponencia, se acuerda solicitar a la Diputación Foral un informe en el que el Departamento de Hacienda y Finanzas analice si la Norma Foral 7/1996 del Impuesto sobre Sociedades ha cumplido los objetivos que se plantearon a la hora de su aprobación, teniendo en cuenta las sucesivas modificaciones que ha sufrido desde su entrada en vigor, y si estos objetivos eran necesarios y adecuados para la actividad económica y la Hacienda Pública. Asimismo, se estipula que el informe habrá de analizar la estructura del impuesto actualmente vigente y

zituela, eta zergaren datu nagusiak jaso, bai eta Departamentuaren ustez zergak dituen hutsuneak ere.

la de los regímenes especiales, recogiendo los datos principales de dicho impuesto y las deficiencias que, en relación con el mismo, hayan sido detectadas por el Departamento.

Agerraldien egutegia hasi aurretik komeni zenez Foru Aldundiaren txostena ezagutzea, Talde Txostengilek erabaki zuen Foru Aldundiak txostena egiteko beharrezkotzat zuen epeari egokitzea egutegia.

Dada la conveniencia de conocer el informe de la Diputación Foral antes de comenzar con el calendario de las comparecencias, la Ponencia decide adecuar dicho calendario al plazo que la Diputación Foral estima necesario para la elaboración del mismo.

5. Agerraldiak Batzordearen aurrean.

Talde Txostengileak honako hauek gonbidatu zituen gaiari buruz eremu oso ezberdinetan dituzten iritziak eta informazioa jasotzearren: erakundeetako ordezkariak, korporazio-erakundeak, gizarte-eragileak, ekonomia-eragileak eta adituak.

Helburu horrekin, agerraldi hauek egin ziren:

- **2012ko martxoaren 6ko saioa:**

Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

Xabier Olano Jauregi, Ogasuneko zuzendari nagusia.

Miren Itziar Miner Canflanca, Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusia.

Jon Urigüen Ansola, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko foru diputatua.

5. Celebración de comparecencias ante la Comisión.

La Ponencia ha invitado a comparecer a representantes de entidades institucionales, organismos corporativos, agentes sociales y económicos y expertos al objeto de recabar información y conocer las opiniones, que desde ámbitos muy plurales, se mantienen sobre esta materia.

Con esta finalidad se han celebrado las siguientes comparecencias:

- **Sesión de 6 de marzo de 2012:**

Helena Franco Ibarzabal, diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Xabier Olano Jauregi jauna, director general de Hacienda.

Miren Itziar Miner Canflanca, Directora General de Política Fiscal y Financiera.

Jon Urigüen Ansola, diputado foral del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

- **2012ko martxoaren 20ko saioa:**

Yolanda Domínguez Román, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergetako zerbitzuburua.

M. del Coro Pereiro Zabala, Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako zuzendariordea.

Manuela Escribano Riego, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantzetako sailburuordea.

José Luis España Guzmán, Ogasun eta Finantza Sailburuordetzako Zerga Administrazioko zuzendaria.

- **Sesión de 20 de marzo de 2012:**

Yolanda Domínguez Román, jefa del Servicio de Impuestos Directos del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Mª del Coro Pereiro Zabala, Subdirectora de Inspección del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Manuela Escribano Riego, Viceconsejera de Hacienda y Finanzas del Gobierno Vasco.

José Luis España Guzmán, Director de Administración Tributaria de la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas.

- **2012ko martxoaren 27ko saioa:**

Nekane Jurado Pérez andrea, Ogasun eta Finantzetan aditua.

Juan Carlos Maeso de Quiñones, Kutxabank-eko Zerga Aholkularitzako burua.

Joseba Madariaga Ibarra, Euskadiko Kutxako Ikerketa Departamentuko zuzendaria.

- **Sesión de 27 de marzo de 2012:**

Nekane Jurado Pérez, experta en Hacienda y Finanzas.

Juan Carlos Maeso de Quiñones, Jefe de Asesoría Fiscal de Kutxabank.

Joseba Madariaga Ibarra, Director del Departamento de Estudios de Caja Laboral.

- **2012ko apirilaren 3ko saioa:**

Mikel Noval Fernández, ELAko arduradun konfederala.
Idoia Intxaurbe, ELAko ordezkaria.

Iñaki Zabaleta, ELAko ordezkaria.

José Mª García García, CCOO sindikatuko Gipuzkoako lurralde-arduraduna.
Eduardo García Elosua, ekintza sindikaleko idazkaria.

- **Sesión de 3 de abril de 2012:**

Mikel Noval Fernández, responsable confederal de ELA.
Idoia Intxaurbe, representante del sindicato ELA.
Iñaki Zabaleta, representante del sindicato ELA.

José Mª García García, Responsable territorial de CCOO en Gipuzkoa.
Eduardo García Elosua, Secretario de Acción Sindical.

Rafael Izquierdo Sánchez, LABeko ekonomia-arduraduna.

Raúl Arza Velez, antolaketako eta komunikazioko idazkaria.
Modesto Martínez Machin, Gipuzkoako lurralde-idazkaria.

Rafael Izquierdo Sánchez, Responsable de Economía de LAB.

Raúl Arza Velez, Secretario de Organización y Comunicación.
Modesto Martínez Machin, Secretario Territorial de Gipuzkoa.

- **2012ko apirilaren 17ko saioa:**

José Miguel Ayerza Mendiburu, ADEGIko idazkari nagusia.
Patxi Sasigain Sáenz de Buruaga, ADEGIko Lehiakortasun eta Berrikuntzako zuzendaria.

Javier Goienetxea Urkaregi, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko lehendakaria.

Endika Sánchez Agirre, Gipuzkoako Merkataritza Ganberako idazkari nagusia.

Koldo Saratxaga, GBE-NER (Gizarte Berria Eraikitzen Elkarteko ordezkaria.
Pablo Aretxabala Pellón, GBE-NER Gizarte Berria Eraikitzen Elkarteko ordezkaria.

- **Sesión de 17 de abril de 2012:**

José Miguel Ayerza Mendiburu, Secretario General de ADEGI.
Patxi Sasigain Sáenz de Buruaga, Director de Competitividad e Innovación de ADEGI.

Javier Goienetxea Urkaregi, Presidente de la Confederación de Cooperativas de Euskadi.

Endika Sánchez Agirre, Secretario General de la Cámara de Comercio de Gipuzkoa.

Koldo Saratxaga, Representante de la Asociación Nuevo Estilo de Relaciones).
Pablo Aretxabala Pellón, Representante de la Asociación Nuevo Estilo de Relaciones).

- **2012ko maiatzaren 8ko saioa:**

Jesús Alberdi Areizaga, Elkargiko kontseilari delegatua.

Urko Odriozola Odriozola, Elkargiko prentsa-arduraduna.

Lander Beloki Mendizabal, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanoa.

Alberto Atxabal Rada, Deustuko Unibertsitateko aholkularitza fiskaleko masterreko zuzendaria, eta finantza- eta zerga-zuzenbideko irakaslea.

Marco Antonio Rodrigo Ruiz, Euskal Herriko

- **Sesión de 8 de mayo de 2012:**

Jesús Alberdi Areizaga, Consejero Delegado de Elkargi.

Urko Odriozola Odriozola, responsable de prensa de Elkargi.

Lander Beloki Mendizabal, Decano de la Facultad de Ciencias Empresariales de la Universidad de Mondragón.

Alberto Atxabal Rada, Director del Máster de Asesoría Fiscal, y Profesor de Derecho Financiero y Tributario de la Universidad de Deusto.

Marco Antonio Rodrigo Ruiz, Catedrático de

Unibertsitateko Finantza eta Zerga Zuzenbideko katedraduna.

Antxon Lafont Mendizabal, ekonomia aplikatuan doktorea eta enpresaburua.

Derecho Financiero y Tributario de la Universidad del País Vasco.

Antxon Lafont Mendizabal, Doctor en Economía Aplicada y empresario.

- **2012ko maiatzaren 22ko saioa:**

- **Sesión de 22 de mayo de 2012:**

José Ramón Arrondo Martín, REAF-eko (Gipuzkoako Ekonomisten eta Zerga-Aholkularien Erregistroa) lehendakaria.

Mikel Sarriegi Etxeberria, Ekonomisten Euskal Elkargoko Gipuzkoako saileko lehendakaria.

José Ramón Arrondo Martín, Presidente del Registro de Economistas y Asesores Fiscales de Gipuzkoa.

Mikel Sarriegi Etxeberria, Presidente del Colegio Vasco de Economistas-Sección Gipuzkoa.

Jorge Luis Díez Franco, Gipuzkoako Zergetako eta Tributuetako Aholkularien Elkarteko lehendakaria.

Jorge Luis Díez Franco, Presidente de la Asociación de Asesores Fiscales y Tributarios de Gipuzkoa.

Roberto Marqués Marqués, Gipuzkoako Zergetako eta Tributuetako Aholkularien Elkarteko lehendakariordea.

Roberto Marqués Marqués, Vicepresidente de la Asociación de Asesores Fiscales y Tributarios de Gipuzkoa.

Esther Larrañaga Galdos, politika publikoetan aditua.

Esther Larrañaga Galdos, experta en políticas públicas.

Ignacio Zubiri Oria, Euskal Herriko Unibertsitateko Ogasun Publikoko Saileko katedraduna.

Ignacio Zubiri Oria, Catedrático de Hacienda Pública en la Universidad del País Vasco.

Talde Txostengileak pertsona horiei guztiei eskerrak eman nahi izan zizkien publikoki, egin zituzten ekarpenek kideen lana erraztu zutelako, eta Talde Txostengilearen lana aberastu zutelako.

A todos ellos, desea la Ponencia hacer público su agradecimiento, ya que sus aportaciones han contribuido a enriquecer los trabajos de la Ponencia y facilitado la labor de sus miembros.

6.- Ondorioak prestatzeko metodologia.

6.- Metodología para la elaboración de las conclusiones.

Talde Txostengileko kideek erabaki zuten Foru Aldundiak egitea oinarrizko dokumentua, Talde Txostengilearen ondorioak jasoko zituen txostena egiteko euskarria izateko balio zezan,

Los miembros de la Ponencia acuerdan que sea la Diputación Foral, como se ha hecho con ocasión de otras ponencias, la que confeccione un documento base que sirva de soporte para la

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

beste hainbat talde txostengiletan egin izan den bezala. Era berean, komenigarritzat jo zuten dokumentua hiru ataletan banatzea, batzarkide taldeen ekarpenek atal bakoitzari erreferentzia egin ahal ziezaioten.

elaboración del informe que contenga las conclusiones de la Ponencia. En ese sentido, se estima conveniente que el documento esté estructurado en partes diferenciadas, a fin de que las aportaciones de los grupos junteros puedan ir referenciadas a los apartados de los que consta el documento.

Horrez gain, erabaki zuten dokumentu hori jaso eta gero epe bat irekitzea batzarkide taldeek ondorioak aldatzeko proposamenak aurkezteko; proposamenak osokoak izan zitezkeen (ordezko testua aurkeztuz), edo dokumentuaren atal bakoitzari buruzkoak.

Se resuelve, además, que recibido el documento mencionado se abra un plazo para que los grupos junteros puedan presentar sus propuestas de modificación a las conclusiones, que podrán ser a la totalidad (presentando un texto alternativo) o a cada una de las partes de las que consta el documento.

Hona hemen hurrengo izapidea: Talde Txostengileak ondorioak onartu eta gero, ados ez dauden batzarkide taldeek boto partikularrak aurkez ditzakete 24 orduko epean. Boto partikularrak ondorioei batuko zaizkie, eta guztia bidaliko zaio Ogasun eta Finantza Batzordeari.

El siguiente trámite, una vez aprobadas las conclusiones por parte de la Ponencia, consiste en que los grupos junteros que disientan de las mismas podrán presentar en 24 horas sus votos particulares que se incorporarán a las conclusiones y se remitirán junto con éstas a la Comisión de Hacienda y Finanzas.

Azkenik, ekainaren 29an Ogasun eta Finantza Batzordea biltzea aurreikusi zuten, ondorioak onartzeko eta ganberako Mahaiari bidaltzeko.

Por último, se prevé que la Comisión de Hacienda y Finanzas se reúna el día 29 de junio para la aprobación de las conclusiones y su remisión a la Mesa de la Cámara.

7.- Txostena egiteko epea

Ogasun eta Finantza Batzordeak, Talde Txostengilea eratzeko eginiko bilkuran, erabaki zuen Talde Txostengileak sei hilabeteko epean bukatu behar zituela lanak. Epe hori onartutako lan-egutegiarekin bat zetorren, lanak epearen barruan egin ahal izateko moduan.

7.- Plazo para rendir el informe

La Comisión de Hacienda y Finanzas, en su reunión de creación de la Ponencia, determina que la misma deberá finalizar sus trabajos en el plazo de seis meses, período al cual se ajusta el calendario de trabajo aprobado por la Ponencia para poder llevar a término la labor encomendada en el plazo previsto.

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

8.- Konklusioen txostena

Sozietateen gaineko Zergaren erreformari zein beste edozein erreformari ekiteko, erreforma kokatzen den testuinguruaren analisi orokorrago bat egin behar da.

8.1. Nazioarteko testuingurua

Gipuzkoako Batzar Nagusiek garbi nabaritzen dute egungo mundua etengabe ari dela aldatzen, eta botere politikoaren eta ekonomikoaren guneak etengabe ari direla mugitzen kontinente batzuetatik besteetara. Aldaketa testuinguru honetan aktore berriak ari dira agertzen, gorantz indar biziz doazen potentziak, eta horrek behartu egiten gaitu munduaz dugu ikuspegi sarritan estatiko eta zeharo eurozentrista aldatzera, horren tokian dagoeneko poloaniztun bihurtu den munduaren ikuspegi askoz dinamikoago bat jarriz.

Munduko botere aldaketa horiek, gainera, denboran luzatzen ari den eta, dirudienez, epe laburrean amaituko ez den krisialdi ekonomikoko egoera batean ari dira gertatzen. Europan austeritate politikak frogatu dira, baina ez dute hobetu ekonomiaren egoera. Bestetik, krisi ekonomikoak osagai estruktural propioak ditu; osagai horiek globalizazio ekonomiko eta finantzario prozesuen emaitza eta Europar Batasunaren barruan izandako gobernantza defizitaren ondorio dira.

Etengabeko aldaketa koiuntura honetan, herrialdeek, enpresek eta pertsonek egokitzeko duten ahalmena da giltza.

8.- Informe de conclusiones

Abordar la reforma del Impuesto sobre Sociedades así como la reforma de cualquier otro impuesto exige un análisis del contexto más general en el que ésta se enmarca.

8.1. Sobre el contexto internacional

Las Juntas Generales de Gipuzkoa constatan que nos encontramos en un mundo en continuo cambio en el que los centros de poder político y económico se mueven constantemente de unos continentes a otros. En este contexto de cambio están apareciendo nuevos actores, potencias emergentes con una pujanza que nos obliga a modificar nuestra visión muchas veces estática y fuertemente eurocentrista del mundo, por otra mucho más dinámica de un mundo que ya se ha transformado en multipolar.

Esos cambios de poder en el mundo se están produciendo además en una tesitura de crisis económica que se alarga en el tiempo y que no parece que vaya a tener final a corto plazo. En Europa se han ensayado políticas de austeridad que no han posibilitado que la situación económica mejore. Por otra parte, la crisis económica cuenta con unos componentes estructurales propios, resultado de los procesos de globalización económica y financiera, así como de un déficit de gobernanza en el seno de la Unión Europea.

En esta coyuntura de continuo cambio la clave es la capacidad de adaptación de los países, las empresas y las personas.

8.2. Euskal erakundeak eta eskumen fiskalak

Gure erakunde antolaketa konplexu samarra da, arrazoi historikoek eragindako garapen luze baten ondorioz.

Lurralde historikoetako batzar nagusiek zerga sistema arautu eta fiskalitatea itxuratzeko ardura dute, zerbitzu eta prestazio publikoak finantzatzeko baliabide nahikoak lortze aldera. Foru aldundiek dute zerga arauak aplikatu eta zerga-bilketa kudeatzeko eskumena.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak hiru lurralde historikoentzat gobernatzen du, eta hainbat zerbitzu hornitzeko arduratzen da: osasun eta hezkuntza, gizarteratzea, herritarren segurtasuna, etxebizitza, ekonomiaren sustapena eta abar.

Eusko Legebiltzarrean Euskadiko Aurrekontu Orokorrak eztabaidatu eta onartzen dira urtez urte. Dena den, Legebiltzarrak ez du eskumenik baliabide publiko erabilgarrien zenbatekoa erabakitzeko, eta ez du zerga araudiaren arloko tresnarik zerbitzu publikoak ematean beharrezkoak izan daitezkeen finantzaketa beharrei erantzuteko.

Hainbat gobernu alderdi politiko desberdinen esku egon direnean eta, gainera, zerga sarrerak gutxitu direnean, agerian jarri dira bai gure zerga sistema ulertzeko dauden ikuspuntu desberdinak eta bai zerga arloan helburu garrantzitsuak elkarrekin lortzeko dagoen ulertze eza. Eta bi faktore horien ondorioz,

8.2. Sobre las instituciones vascas y las competencias fiscales

Nuestra organización institucional es bastante compleja fruto de un largo desarrollo en el que se han ido acumulando razones de índole histórica.

Las Juntas Generales de los Territorios Históricos son las encargadas de regular el sistema tributario, de configurar la fiscalidad que permitirá obtener los recursos suficientes para financiar los servicios y prestaciones públicas. Las Diputaciones Forales son las competentes para aplicar las normas tributarias y obtener la recaudación.

Por otra parte, El Gobierno Vasco gobierna para tres Territorios Históricos y es el responsable para la provisión del los servicios sanitarios y educativos, así como, entre otros, los de integración social, seguridad ciudadana, vivienda, promoción económica, etc...

En el parlamento Vasco se debaten y aprueban cada año los Presupuestos Generales del País Vasco, sin embargo, carece de competencias en la determinación del tamaño de los recursos públicos disponibles, no cuenta con herramientas en el ámbito normativo tributario para atender las necesidades de financiación que puedan requerir la provisión de los servicios públicos.

Cuando diferentes gobiernos han estado en manos diversas y además se ha producido un deterioro de los ingresos tributarios, se han puesto de manifiesto las distintas formas de entender nuestro sistema tributario y la falta de entendimiento para acometer conjuntamente el logro de objetivos relevantes

ekimenak eten egin dira, kontuan hartu gabe krisi ekonomikoari lotutako egungo egoerari eta finantza publikoen desorekari aurre egiteko beharrezkoak diren analisi sakonak lehenesten dituen ikuspuntu orokor bat.

en el ámbito tributario, quebrándose las iniciativas sin tener en cuenta un enfoque de conjunto en el que primen los análisis de fondo que la situación actual de crisis económica y desequilibrios de las finanzas públicas reclaman.

Horregatik guztiagatik, komenigarria da gure antolamendu juridikoak dituen baliabideak erabiltzea, adostasun politiko nahiko baten laguntzaz Erakunde Erkideen autonomia finantzarioa eraldatzeko, betiere gastu eta sarrera erantzukizunen artean harreman handiagoa lortu dadin eta ondasun eta zerbitzu publikoen hornidurari buruz erabakitzeko ahalmenaren eta diru sarrera publikoen osaera -bereziki, zerga arlokoak- zehazteko ahalmenaren artean oreka handiagoa egon dadin.

Todo ello recomienda la utilización de los resortes de los que dispone nuestro ordenamiento jurídico para, con el consenso político suficiente, reformar la autonomía financiera de las Instituciones Comunes, de forma que exista una mayor correspondencia entre responsabilidades de gasto y de ingreso, un mayor equilibrio entre la capacidad para decidir sobre la provisión de bienes y servicios públicos y la capacidad para determinar la composición de los ingresos públicos, en particular los de carácter tributario.

Zalantzarik gabe, horrek erakundeak harmonian elkarrekin bizitzea indartuko du, betiere bakoitzaren eskumenen eremua errespetatuta, eta lurraldeen arteko kohesioa are sendoago egingo du.

Ello, sin duda, reforzará la cohabitación en armonía de las distintas instituciones desde el respeto al ámbito de sus respectivas competencias y fortalecerá la cohesión territorial.

8.3. Gipuzkoa

8.3. Sobre Gipuzkoa

Munduko krisialdi testuinguru orokor honetan, Gipuzkoako ekonomiak hobeto eutsi die jardueraren jaitsiera orokorrari, higiezinen arloaren ahultzeari eta gure hegoaldeko bizilagunak horrenbestez jasaten ari diren zorraren arazoei; horrexen lekuko dugu, esaterako, langabezia tasaren bilakaera.

En este contexto general de crisis en el mundo, la economía de Gipuzkoa ha soportado mejor la caída general de la actividad, el pinchazo inmobiliario y los consiguientes problemas de deuda que atenazan a nuestros vecinos del sur, tal y como lo atestigua, por ejemplo, la evolución de la tasa de paro.

Kontsensu zabala dago gure ekonomiaren portaera hobeago horren zergatien inguruan. Lehen-lehenik, produkzio-ehunaren dibertsifikazioak garapen ekonomiko orekatuago eta egonkorragoa ahalbidetu du. Ildo

Existe un consenso generalizado sobre las causas de ese mejor comportamiento de nuestra economía. En primer lugar, la diversificación del tejido productivo ha permitido un desarrollo económico más

horretatik, industria nagusi izateak oinarri zabal eta sendoa ematen dio Gipuzkoako ekonomiari, eta horrek egonkortasuna ekarri dio bide batez.

Garapen ekonomiko dibertsifikatu eta industrian oinarritu hau faktore multzo baten emaitza da. Eta faktore horiek batu egiten dituzte tradizioa eta kultura industriala, pertsonengan eta prestakuntzan egiten den inbertsio publikoa, ikerkuntza eta garapeneko inbertsioari eman zaion lehentasuna, eta esportaziora zuzendutako begirada. Horri guztiari esker, industriak modua izan du nazioarteko merkatuen funtzionamendua ezagutzeko, hain zuzen merkatu horietako estandarrak betetzen dituzten produktuak fabrikatu eta beste herrialde batzuetan saldu ahal izateko.

Edonola ere, ezin dugu ahantzi orain arte egindakoak ez duela etorkizuna bermatzen, eta edozein garapen motatarako oinarria toki mailan dagoela, hots, jarduera ekonomikoak txertatzen diren lurraldean, eta jarduera horiek hobetzea eta beste esparru batzuetara, nazioartekoa barne, eramatea ahalbidetzen duten hobekuntzak garatzen diren lekuan.

Gipuzkoako ekonomiak portaera hobea izan du, bai, baina lehen aipatutako arazo orokor horiek ere eragiten diote, eta lurraldeko ekonomiak antzeman ditu ondorioak. Hala, esate baterako, begi-bistakoa da gure lurraldeko ekonomiak eta, bereziki, enpresek duten likidezia eza, burbuila inmobiliarioaren leherketaren ondorioz.

Krisi ekonomikoak zerga-bilketaren jaitsiera orokorra ekarri du berekin, azken hogeita hamar urtean jasan ditugun krisietan inoiz ikusi gabeko mailan. Zerga-bilketaren jaitsiera

equilibrado y estable. En ese sentido, el predominio de la industria dota a la economía de Gipuzkoa de una amplia y consistente base que le ha dado estabilidad.

Este desarrollo económico diversificado y basado en la industria es el resultado de un conjunto de factores que aúnan tradición y cultura industrial, inversión pública en personas y en formación, la prioridad que se ha otorgado a la inversión en investigación y desarrollo así como la orientación hacia la exportación. Todo ello ha permitido a la industria conocer el funcionamiento de los mercados internacionales, fabricar productos que cumplan los estándares de dichos mercados y venderlos en otros países.

En cualquier caso no se puede olvidar que lo hecho hasta ahora no garantiza el futuro y que la base para cualquier tipo de desarrollo está en lo local, en el territorio en el que se insertan las actividades económicas y donde se desarrollan las mejoras que permiten mejorar y trasladar las mismas a otros ámbitos, incluido el internacional.

A pesar de este mejor comportamiento de la economía de Gipuzkoa, a ésta también le afectan los problemas de carácter global antes reseñados y sus efectos se dejan sentir en la economía del territorio. Así, por ejemplo, es evidente la falta de liquidez que padece la economía de nuestro territorio, especialmente las empresas, derivada de la explosión de la burbuja inmobiliaria.

La crisis económica ha traído consigo una caída global en la recaudación que no se había producido en ninguna de las crisis que hemos padecido en los últimos treinta años. Dentro de

orokorraren barnean, Sozietateen gaineko Zergako bilketaren jaitsiera garrantzitsua izan da bereziki, ekonomiaren goraldiko azken urteetan bilduaren erdiraino iritsi baita.

la caída general de la recaudación, la disminución de la recaudación por el Impuesto sobre Sociedades ha sido especialmente relevante, bajando hasta la mitad de lo recaudado en los últimos años de bonanza.

8.4. Harmonizazioa

8.4. Sobre la armonización

Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren erreformaren edukia baldintzatzen duten alderdietako beste bat, Batzar Nagusiek bazterrean uzterik ez duten bat, herrialde txiki honetako zerga-ingurune konplexua da; izan ere, herrialde txiki honetan gaur egun sei zerga sistema desberdin dauzkagu. Baldintza horietan, agerikoa da Sozietateen gaineko Zergaren harmonizazioan aurrera joatearren egiten diren ahalegin guztiak positiboak izango direla, enpresentzako kudeaketa-kostuak sinplifikatzen diren neurrian. Beraz, harmonizazio, koordinazio eta lankidetza fiskala giltzak dira gure herrialdearen zerga erreforma osorako.

Otro de los aspectos que condiciona el contenido de la reforma del Impuesto sobre Sociedades de Gipuzkoa y que las Juntas Generales no pueden obviar es el complejo entorno fiscal en el que estamos inmersos en este pequeño país que a día de hoy interactúa con seis sistemas fiscales diferentes. En esas condiciones es evidente que todos los esfuerzos que se hagan para avanzar en la armonización del Impuesto sobre Sociedades serán positivos en la medida en la que simplificará los costos de gestión para las empresas. La armonización, coordinación y colaboración fiscal es por lo tanto un elemento clave de toda reforma tributaria en nuestro país.

Zentzu horretan, desiragarria da edozein zerga erreforma Zerga Koordinazioko Organoaren esparruan adostea, batez ere kontuan hartuta haren eginkizun nagusia foru aldundien arteko harmonizazioa, koordinazioa eta lankidetza sustatzea dela, betiere zergen kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.

En este sentido sería deseable que cualquier reforma tributaria sea consensuada en el ámbito del Órgano de Coordinación Tributaria, sobre todo teniendo en cuenta que su misión principal consiste en impulsar la armonización, coordinación y colaboración entre las diputaciones Forales en aras a lograr una mayor eficacia en la gestión tributaria.

Ia partaide guztiak harmonizazioaren aldekoak dira, sinpletasunaren, segurtasun juridikoaren eta herrialde senaren parekoa delakoan.

Prácticamente todos los ponentes han abogado por la armonización, entendiendo que es sinónimo de simplicidad, seguridad jurídica y visión de país.

Gainera, eta nazioarteko testuinguru batean, Sozietateen gaineko Zerga erreformatzekotan, kontuan hartu beharko da Europar Batasunean

Pero además, y en un contexto internacional, la reforma del Impuesto de Sociedades deberá considerar la normativa sobre la regulación de

Sozietateen gaineko Zergaren oinarri erkideei buruz ezarritako araudia; izan ere, une honetan krisiaren ondorioz proiektuan egon arren, bultzada eman zaio araudi horri.

Edonola ere, harmonizatzeko ahaleginak ezin dira izan sozietateen irabazien gaineko ezarpen bidezko eta ekitatezkoago baterantz aurre egiteko oztopo.

bases comunes del Impuesto de Sociedades, proveniente de la Unión Europea, que aunque actualmente se encuentra en proyecto, por efecto de la crisis, ha cogido impulso.

En cualquier caso los esfuerzos armonizadores no pueden ser una cortapisa que evite el avance hacia una imposición sobre los beneficios de las sociedades más justa y equitativa.

8.5. Enpresa, eta aberastasuna sortzea

8.5. Sobre la empresa y la creación de riqueza

Sozietateen gaineko Zergaren erreforma posibleak zabaldu egin du enpresek gure gizartean betetzen duten eginkizunari buruzko eztabaida. Enpresaren eginkizuna azpimarratzen da, aberastasun eta enplegu sortzailetzat, baina alde batean lagatzen da hori posible izateko estatuak, administrazioak, bere gain hartzen dituela gizartearen funtzionamendu gastu orokorrak: irakaskuntza gastuak, osasunekoak, garraio publikokoak, adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko zerbitzuenak, azpiegituretakoak, jabetza eskubideen babesekoak, etab. Administrazioak bere gain hartzen dituen gastu orokorrek ahalbidetzen dute gure gizartearen funtzionamendu orokorra, eta enpresena bereziki, hauei enplegua eta aberastasuna sortzeko ingurunea eskaintzen baitie, gastu orokor horiek ordaintzetik libre uzten dituelarik.

La posible reforma del Impuesto sobre Sociedades ha abierto el debate sobre el papel que desempeñan las empresas en nuestra sociedad. Se subraya el papel de la empresa como creadora de riqueza y de empleo, pero se soslaya que esto es posible gracias a que el Estado, la administración, asume los gastos generales de funcionamiento de la sociedad: los gastos en enseñanza, sanidad, transporte público, servicios para el cuidado de personas mayores y de la infancia infraestructuras, protección de los derechos de propiedad, etc. Los gastos generales de los que se hace cargo la administración permiten el funcionamiento general de nuestra sociedad y de las empresas en particular, proporcionando a éstas el entorno para la generación de empleo y la acumulación de riqueza al exonerarlas del pago de dichos gastos generales.

Gastu orokor horiei gehitu behar zaizkie berariaz jarduera ekonomikoa sustatzera eta enpresen jarduera diruz laguntzera zuzendutako gastuak. Horien artean, jarduera jakin batzuetarako laguntza zuzenak nabarmentzen dira, eta abalen ematea, industria lurzoruaren sustapena, etengabeko

A esos gastos generales hay que añadir los gastos dirigidos específicamente a promocionar la actividad económica y subvencionar el quehacer de las empresas. Entre estos gastos destacan las ayudas directas a la realización de determinadas actividades, la concesión de avales, la promoción de suelo industrial, la

prestakuntza, garraio eta komunikazio azpiegitura espezifikoak eta abar.

Edonola ere, gastu orokor horiek estali egin behar dira, batera edo bestera. Administrazioa arduratzen da horretaz, zerga-ordainarazpenetik jasotzen dituen baliabideak erabilita. Eta zerga sistemak zerga espezifiko bat aurreikusten du, enpresen irabaziei aplikatzeko, horiek ere gastu publikoa mantentzeko bere ekarpena egin dezaten, hark mesedetzen dituen neurrian.

Ildo honetatik, bere neurrian baloratu behar da enpresek gure gizartean enplegua eta aberastasuna sortzeko egiten duten ekarpena; eta, garrantzirik batere kentzeke, ez dugu ahantzi behar hori guztia posible egiten duen testuinguru sozioekonomikoa.

8.6. Enpresen forma juridiko desberdinak, eta haien tamaina

Zergaren araudia Gipuzkoan ezarpen maila handia duten enpesa txiki eta ertainei aplikatzen zaie batez ere. Dena den, Sozietateen gaineko Zergaren bidez sozietateek lotutako errenta kargatzen da, baina Errenta Zergan kargatutako jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoak kanpoan uzten ditu. Beraz, jarduera ekonomikoen tributazioaren eremuak Sozietateen gaineko Zergaren esparrutik harago doa, eta Errenta Zergara ere hedatzen da.

Hortaz, Sozietateen Zergan edo Errenta Zergan enpresen mozkina tributatzeko dauden modu desberdinen artean, oso multzo heterogeneoa osatzen da. Komenigarria izango litzateke

formación continua, infraestructuras de transporte y comunicaciones específicas, etc.

En cualquier caso, esos gastos generales han de ser cubiertos de una u otra forma. De ello se encarga la administración mediante los recursos recibidos por la exacción de impuestos. Y el sistema de impuestos prevé un impuesto específico a aplicar a los beneficios de las empresas para que éstas también aporten al sostenimiento del gasto público en la medida en que se ven favorecidos por el mismo.

En este sentido conviene valorar en sus justos términos la aportación que hacen las empresas a la creación de empleo y riqueza en nuestra sociedad y que sin restarle ninguna importancia no conviene olvidar el contexto socioeconómico que lo hace posible.

8.6. Sobre las diferentes formas jurídicas de las empresas y el tamaño de las mismas

La normativa del Impuesto se aplica principalmente a las pequeñas y medianas empresas con fuerte implantación en Gipuzkoa. Sin embargo, el Impuesto sobre Sociedades grava la renta obtenida por las sociedades, dejando fuera a las personas físicas que desarrollan actividades económicas que tributan en el IRPF. Este es, por tanto, un ámbito, el de la tributación de las actividades económicas, que supera el propio del Impuesto sobre Sociedades y que se extiende, también al IRPF.

Por lo tanto, las diferentes formas de tributación del beneficio empresarial en el Impuesto sobre Sociedades o en el IRPF configuran un conjunto muy heterogéneo. Sería

zergadun desberdinen tributazioan aurrerapenak lortzea, neutraltasun, ekitate eta sinpletasun printzipioei dagokienez.

Zergaren erreformari buruzko eztabaidak mahai gainean jarri du enpresen forma juridikoaren eta tamainaren kontua, bai eta haiek tipologiaren arabera modu positibo batean bereizi behar ote diren ere. Azpimarratu behar da Gipuzkoako sare ekonomikoaren oinarria bi enpresa mota direla: kooperatibak eta enpresa txikiak.

Enpresen forma juridikoari esker, kasu batzuetan mugak eta murrizpenak ezartzen zaizkie sozietateen jarduketei, eta haiek aintzat hartu behar dira. Legeriaren bidez sozietate forma jakin batzuei ezartzen zaizkien muga horien ondorioz, oro har, enpresa horiek konpromiso maila handiagoa hartzen dute lurraldearekin; hori horrela, produkzioa deslokalizatzeko eragiketek konplexutasun handiagoa izaten dute erraztasun handiagoa agertzen duten beste kasu batzuetan baino.

Era berean, enpresaren tamaina elementu desberdintzaile bat izan daiteke haren jarduera garatzeko, finantzaketa lortzeko edo laguntzak eskuratzeko.

Horregatik guztiagatik, kontuan hartu beharko litzateke batzuen eta besteen tributazioan desberdintasun jakin batzuk ezarri edo mantentzeko aukera, hala badagokio.

Enpresen forma juridikoari dagokionez sortzen den beste kontu bat zera da, tresna finantzario desberdinetan inbertitzeko fondoak erakartzeko jardueran aritzen diren sozietate jakin batzuei aplikatu beharreko tributazioa. Inbertsio kolektiboko instituzio horiek ez dira ohiko sozietateak, baizik eta errenta-tresnak eta, horrenbestez, tributazioak kontuan hartu behar

conveniente que se consiguieran avances en la tributación de los diferentes contribuyentes respecto a los principios de neutralidad, equidad y sencillez.

El debate sobre la reforma del impuesto ha puesto sobre la mesa la cuestión de la forma jurídica de las empresas y su tamaño y si éstas debían ser discriminadas de manera positiva según su tipología. Es de reseñar que el tejido económico de Gipuzkoa está basado principalmente en dos tipos de empresas: las cooperativas y las pequeña empresas.

La forma jurídica de las empresas impone en determinados casos, límites y restricciones a las actuaciones societarias que han de ser tenidas en cuenta. Estas limitaciones que regula la legislación a determinadas formas societarias, derivan generalmente, en un mayor grado de compromiso de dichas empresas con el territorio, resultando bastante más complicadas las operaciones de deslocalización productiva que en otros casos pueden darse con mayor facilidad.

Asimismo, el tamaño de la empresa puede ser un elemento diferenciador para el desarrollo de la actividad, obtención de financiación o acceso a ayudas.

Por todo ello, se debería tomar en consideración la posibilidad de establecer o mantener ciertas diferencias, en su caso, entre la tributación de unas y otras.

Otra cuestión que surge en relación con la forma jurídica de las empresas es la de la tributación a aplicar a determinadas sociedades que se dedican a la captación de fondos para invertirlos en diferentes tipos de instrumentos financieros. Este tipo de instituciones de inversión colectiva no son sociedades al uso sino mas bien vehículos de renta y por lo tanto su

ditu horien ezaugarri bereziak.

Era berean, enpresaren neurriaren arabera karga mota desberdinak ezartzea egokia ote den jartzen da zalantzan. Egia bada ere neurriak zerikusi handirik ez duela enpresen jarduerarekin, erabilpen sozialarekin edo merkatuan kokapen nagusi bat mantentzearekin, egia da, halaber, neurri txikiko enpresak direla iraun ahal izateko baliabide gutxien dituztenak. Zentzu horretan, amortizazio azkartuak enpresa txikien egoera finantzarioa hobetu eta inbertsio aukerak indartzeko balio dezake.

8.7. Egungo Sozietateen gaineko Zerga

Komeni da dokumentu honetan gogora ekartzea gaur egun Gipuzkoan indarrean dagoen Sozietateen gaineko Zergaren ezaugarriak. Maila kuantitatiboan, datu garrantzitsuenak honakoak dira:

Sozietateen gaineko Zergaz Gipuzkoan egiten den bilketak jaitsiera ikusgarria izan du azken urteotan; jaitsieraren atzetik jaitsiera datorrela, dagoeneko 1998-1999ko mailetan dago. Gainera, 2008ko ekitalditik aurrera, Sozietateen gaineko Zergaren bidezko bilketak zerga sisteman duen pisuak beherantz egin du: bildutako kopuru osoan batez beste % 11-12 izatetik % 6,7 izatera igaro da 2011ko ekitaldian, eta gainera beste foru lurraldeetan edo lurralde erkidegoan baino txikiagoa da.

Zerga-bilketaren beherakada krisialdiari eta jarduera ekonomikoaren jaitsierari lotu bazaio ere, ez da ahantzi behar zerga honek hainbat

tributación ha de tener en cuenta sus especiales características.

De la misma forma se cuestiona la idoneidad de establecer diferentes tipos de gravamen en función del tamaño de las empresas. Si bien es cierto que el tamaño poco tiene que ver con el desempeño de las empresas, con su utilidad social o con el mantenimiento de una posición dominante en el mercado, también es cierto que son las empresas de pequeño tamaño las que menos recursos tienen para subsistir. En este sentido, la amortización acelerada puede servir para mejorar la situación financiera y potenciar las posibilidades de inversión de las pequeñas empresas.

8.7. Sobre el actual Impuesto sobre Sociedades

El Impuesto sobre Sociedades actualmente vigente en Gipuzkoa tiene unas características que conviene recordar en este documento. Cuantitativamente, los datos más relevantes son los siguientes:

La recaudación por Impuesto de Sociedades en Gipuzkoa ha sufrido una caída espectacular en los últimos años, llevándonos las sucesivas caídas a niveles de 1998-1999. Además a partir del ejercicio 2008 el peso de la recaudación del IS en el sistema tributario ha ido descendiendo, partiendo de una media del 11-12% hasta descender a un 6,7 % en el 2011 del total de la recaudación, siendo menor que en los otros territorios forales o en territorio común.

A pesar de que la bajada de la recaudación se ha asociado a la crisis y al descenso de la actividad económica, no hay que olvidar que

erreforma fiskal izan dituela, eta horiek nabarmen murriztu diotela bilketarako ahalmena. Hain zuzen ere, 2007ko erreformak % 25,6 kendu zion zerga honen bilketa-potentzialari.

este impuesto ha vivido sucesivas reformas fiscales que han mermado fuertemente su capacidad recaudatoria. Precisamente la reforma del 2007 mermó en un 25,6% el potencial recaudatorio de este impuesto.

Sozietateen gaineko Zergagatiko presio fiskalak ere jaitsiera adierazgarria izan du, Barne Produktu Gordinaren % 1,1era jaitsi baita; Europan, berriz, % 2,7koa da, batez beste.

La presión fiscal del IS también ha sufrido una disminución significativa, llegando al 1,1% del Producto Interior Bruto mientras la media en Europa se sitúa en un 2,7%.

Sozietateen gaineko Zergaren bidezko bilketaren kontzentrazio maila oso altua da. Gipuzkoan, 50 enpresak sartzen duten kuotarekin guztirako bilketaren % 20 osatzen da.

El grado de concentración de la recaudación del IS es muy alto. En Gipuzkoa el 20% de la recaudación total corresponde a la cuota que ingresan solamente 50 empresas.

Krisialdiak ondorio adierazgarririk izan ez badu ere aitortzaile kopuruan, antzeman da, bai horixe, enpresen kontabilitateko emaitzetan.

A pesar de que la crisis no ha tenido efectos relevantes en el número de declarantes, sí se ha dejado notar en los resultados contables de las empresas.

2010eko ekitaldiko batez besteko tasa nominala % 25,3koa izan da, eta batez besteko tasa efektibo erreala % 18,5ekoa; alde handiak ikusten dira, halaber, forma juridikoaren arabera: sozietate anonimoen kasuan, tasa % 20,5ekoa, sozietate mugatuetan % 21,5ekoa, eta kooperatibetan % 5,2koa.

El tipo medio nominal del ejercicio 2010 se sitúa en el 25,3% y el tipo medio efectivo real en un 18,5%, constatándose además grandes diferencias según forma jurídica: en las Sociedades Anónimas el tipo es el 20,5%, en las Sociedades Limitadas el 21,5% y en las cooperativas el 5,2%.

Enpresen kontabilitateko emaitzak izan duen jaitsiera garrantzitsuaren ondorioz, eta karga tasa nominala eta efektiboa jaitsi eta beste zerga beherapen batzuk ere izan direla, zergaren emaitzak nabarmen egin du behera.

Como resultado de la importante caída del resultado contable de las empresas, así como la disminución del tipo de gravamen nominal y efectivo y otras rebajas fiscales el resultado del impuesto desciende de manera significativa.

Sozietateen gaineko Zergako aitorpenetan gehien-gehienak Gipuzkoako foru araudiari lotuak dira, gutxi gorabehera % 97; araudiaren arabera oinarri likidagarriaren banaketa eginik, berriz, gipuzkoar araudia duten enpresen

La inmensa mayoría de las declaraciones de IS son de normativa foral de Gipuzkoa, aproximadamente el 97%, mientras que la distribución de la base liquidable según normativa, nos da que la participación de las

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

partaidetza % 82,2raino jaisten da, eta zergaren emaitzari erreparatuz gero, % 70era.

Gipuzkoako araudiari lotutako enpresen batez besteko tasa nominala beste erakundeenaren azpitik dagoela ikusten da halaber, 6,5 puntuko aldea baitago araudi erkidea aplikatzen dutenekiko; eta alde hori areagotu egiten da tasa efektibo errealaren kasuan, inbertsioagatiko kenkari gehiago aplikatzen baitira. Hala, 2005-2010 eperako 11,4 puntukoa da aldea.

Krisiaren ondorioek arrastoa laga dute, era berean, enpresek egindako inbertsioetan. Izan ere, 2010eko urtearen amaieran % 49ko jaitsiera metatzen zuten 2007koekiko, batik bat aktibo finko materialetako inbertsioaren jaitsieragatik. Dena den, krisiaren eraginak ez dira antzeman enpresek I+Gn egindako inbertsioetan.

Sozietateen gaineko Zergaren erreformari ekiteko datu erabakigarrietako bat zera dugu, geroko epeetako errenta positiboekin konpentsatu ahal izango diren oinarri ezargarri negatibo metatuek iritsitako bolumen ikaragarria. 2010eko urtearen amaieran aplikatzeko dagoen zenbatekoa 4.657 milioi eurokoa da.

Beste hainbeste esan dezakegu kuota-gutxiegitasunagatik aplikatzeke geratutako kenkariei buruz, hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango baitira halaber. Kuota-muga duten kenkarien baturak, data berean, 906 milioi euro egiten ditu, eta mugarik gabeko kenkariak 207 milioiko kopurura iristen dira.

empresas con normativa gipuzkoana en el mismo, desciende hasta el 82,2% y si atendemos al resultado del impuesto el 70%.

También se constata que el tipo medio nominal de las empresas con normativa de Gipuzkoa es inferior al resto de entidades, con una diferencia de 6,5 puntos respecto a las que aplican normativa común y esa diferencia se acentúa en el tipo efectivo real, debido a una mayor aplicación de deducciones por inversión, la diferencia es de 11,4 puntos para el periodo 2005-2010.

Los efectos de la crisis también se han dejado notar en las inversiones realizadas por las empresas, que al final de 2010 acumulan una caída del 49% respecto al 2007, consecuencia sobre todo de la caída de la inversión en activo fijo material. No obstante los efectos de la crisis no se han dejado notar en las inversiones realizadas por las empresas en I+D.

Un dato determinante para acometer la reforma del IS es constatar el extraordinario volumen alcanzado por la suma de bases imponibles negativas acumuladas que podrán ser compensadas con las rentas positivas de periodos posteriores. El importe pendiente de aplicación a final de 2010 es de 4.657 M de euros.

Otro tanto se puede decir de las deducciones no aplicadas por insuficiencia de cuota, que podrán aplicarse también en los periodos impositivos venideros. La suma de las deducciones con límite de cuota, acumula a la misma fecha 906 M de euros y las deducciones sin límite 207 M de euros.

8.8. Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren beste alderdi batzuk

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez Ogasuneko Departamentuko kudeaketa eta ikuskaritza organoek metatutako esperientziak agerian laga ditu alderdi garrantzitsu batzuk. Laburki azalduko ditugu hurrena, ondoko paragrafootan:

Berrinbertsioagatiko salbuespena zalantzan jartzen da, egun duen konfigurazioan; izan ere, administrazioarentzat kuantifikatu ezina den zerga onura bat sortzen du. Horregatik, gomendatzen da figura hori gainbalioaren ordainketa geroratzeko modutzat hartzea, eta informazio gehiago exijitzea inbertsioa gauzatu den aktiboei buruz.

Oinarri zergagarri negatiboei eta kenkariei dagokienez, arazoak ikusten dira preskribatutako epeei dagozkien oinarriak konpentsatzen direnean edo kenkariak aplikatzen direnean, eta adierazten da ezen erreformak erantzun egin behar diela arazo horiei, preskripzio epetik haratago joaten ez utziz alegia, segurtasun juridikoaren printzipioarekiko koherentzia mantentzearren.

Komertzio finantzario inplizituaren fondoaren kengarritasuna ezabatu beharra ere aipatzen da, zaila baita aktiboak baloratzen.

Kenkariei dagokienez, ikusten da oso eragin handia dutela bilketan, asko direlako, batzuek kuota-mugarik ere ez dutelako, eta gainera batzuk zerga arlokoak ez diren gaietan oinarritzen direlako; eta horren guztiaren eraginez oso gauza konplexua da horiek kontrolatzea eta egiaztatzea. Askotan ez dago

8.8. Otros aspectos del Impuesto sobre Sociedades de Gipuzkoa.

La experiencia acumulada por los órganos de gestión e inspección del departamento de Hacienda en relación con el Impuesto sobre Sociedades apunta algunos aspectos relevantes que se resumen brevemente en los siguientes párrafos:

La exención por reinversión se cuestiona en su configuración actual, por generar un beneficio fiscal no cuantificable a priori por la administración por lo que se recomienda que se estudie utilizar esta figura como mero diferimiento del pago de la plusvalía y que se exija más información sobre los activos en los que se ha materializado la inversión.

Respecto a las bases imponibles negativas y las deducciones se observan problemas cuando se compensan bases o se aplican deducciones de periodos prescritos, y se señala que la reforma debe responder a estos problemas no permitiendo ir más allá del periodo de prescripción para ser coherentes con el principio de seguridad jurídica.

Se apunta también la necesidad de eliminar la deducibilidad del fondo de comercio financiero implícito, por la difícil valoración de los activos.

Respecto a las deducciones se constata que tienen un impacto recaudatorio muy alto, por su gran número, porque algunas ni siquiera tienen límite de cuota y además algunas se basan en temáticas no fiscales por lo que su control y verificación es de gran complejidad. Muchas veces no hay organismos públicos que

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

horien egokitasuna ziurta dezakeen erakunde publikorik, eta hori pisuzko elementu gehigarri bat da haiek desagertzea proposatzeko.

puedan certificar su idoneidad lo que constituye un elemento adicional de peso para proponer su desaparición.

Aurrekoaren antzeko gaia dugu mezenasgoarena, Sozietateen gaineko Zergako eta PFEZko kuotako gastu kengarriak eta kenkariak jasotzen baititu, eragin handiz inolaz ere bilketan. Horregatik, irizpideak finkatu beharko lirateke lehentasunezko jarduerak zein diren zehazteko, eta figura horren inguruan sortzen diren zerga onuren zenbatekoa berrikusi beharko litzateke halaber.

Otro tema similar al anterior es el Mecenazgo, que contempla gastos deducibles y deducciones en la cuota del IS e IRPF, con un importante impacto recaudatorio, por lo que convendría fijar criterios a la hora de determinar cuales son las actividades prioritarias y repasar todo el monto de beneficios fiscales que se crean en torno a esta figura.

Araubide bereziei dagokienez, aipatzen da enpresak sustatzeko sozietateen araubideak berrikuspen sakona behar duela. Neurri batean salbuetsirik dauden erakundeei dagokienez, alderdi politikoei aplikatzen zaizkien gehiegizko onurak aipatzen dira. FEAC (bategiteak...) eragiketei dagokienez, hobekuntza posible batzuk aipatzen dira, zerga mailan eta bilketan bertan oso garrantzitsuak diren eragiketa horiek hobeto kontrolatzeko. Kooperatiben zerga-araubideko zerga onura garrantzitsuak aipatzen dira, era berean, eta oro har zerga onura batzuk kentzea edo aldatzea komeni ote den aztertzea proposatzen da, esate baterako interes ekonomikoko elkarteen kapitalera egindako ekarpenengatiko kenkaria.

Respecto a los regímenes especiales se apunta que el régimen de las Sociedades de Promoción de Empresas tiene que revisarse profundamente. En cuanto a las entidades parcialmente exentas se señalan los excesivos beneficios que disfrutan los partidos políticos. Sobre las operaciones FEAC (fusiones...) se apuntan posibles mejoras para un mayor control de estas operaciones que tienen gran trascendencia tributaria e impacto recaudatorio. Se señalan también los importantes beneficios fiscales del régimen fiscal de las Cooperativas y también en general, se propone estudiar la conveniencia de eliminar o modificar ciertos beneficios fiscales, como por ejemplo la deducción por aportaciones al capital de las Agrupaciones de Interés Económico.

8.9. Erreformaren helburua epe luzera begira

8.9. Objetivo de la reforma a largo plazo.

Sozietateen gaineko Zergan planteatzen den edozein erreforma sakonek abiapuntu behar du bete beharreko helburuei buruzko definizio bat; eta helburu horiek ezin dira isolatu dokumentu honetako lehengo puntuetan aztertutako testuinguru orokorretik.

Cualquier reforma de calado que se plantee en el Impuesto sobre Sociedades tiene que partir de una definición de los objetivos a cumplir, que a su vez, no se pueden aislar del contexto general analizado en los anteriores puntos de este documento.

Krisialdi egoeran gaude, eta horrek zerga sistema birplanteatzea eskatzen du, betiere bi helburu nagusi hartuta. Sarrerei dagokienez, adostasun orokorra dago bilketa areagotzea bilatu behar dela, zerga sistemaren ekitate eta progresibitatearen bidetik joz horretarako, eta premia-premiazkoa dela zerga elusiorako bideak kentzea, justizia sozial handiago bati begira. Gastuari dagokionez, gastua arrazionalizatu eta berorren eragin maila areagotu nahi da. Eta hori guztia egungo esparruaren barnean, ezen zerga subiranotasuna batik bat zerga zuzenetara dugu mugatua, zeharkako zergen gaineko kudeaketa-ahalmenaz eta kotizazio sozialen gaineko inolako eskumenik gabe.

Nos encontramos en una situación de crisis que obliga a un replanteamiento del sistema fiscal con dos objetivos generales. Por la parte de los ingresos, hay un acuerdo general sobre la necesidad de buscar un aumento de la recaudación incidiendo en la equidad y progresividad del sistema tributario y sobre la urgencia en la eliminación de las vías de elusión fiscal en aras a una mayor justicia social. Por la parte del gasto, se pretende racionalizar el gasto y aumentar su eficiencia. Todo ello dentro de un marco que nos impone una soberanía fiscal limitada fundamentalmente a los impuestos directos, con capacidad de gestión sobre los indirectos y sin ninguna competencia sobre las cotizaciones sociales.

Testuinguru honetan, planteatzen dugun helburu orokorra asmo handiko xede baterantz jotzea da, hau da, zerbitzu publikoak sendotzea, oinarria izan daitezen pertsonei arreta hobea eskaintzeko, aberastasuna birbanatzeko, enplegua sortzeko eta ongizate-estandar duinak lortzeko Euskal Herriko ahalik eta biztanle gehienentzat. Labur esanda: pertsonengan inbertitzeko.

En ese contexto, el objetivo general que nos planteamos es caminar hacia una meta ambiciosa que consiste en fortalecer los servicios públicos como base para una mejor atención a las personas, una redistribución de la riqueza, la creación de empleo y el logro de unos estándares de bienestar dignos para el mayor número de habitantes de Euskal Herria. En cuatro palabras: invertir en las personas.

Helburu hori lortzera begira, Sozietateen gaineko Zergak, beste zergek bezalaxe, balio egin behar du bilketa areagotzeko, zerga horren bidezko presio fiskala gure inguruko erreferentziako herrialde europarrek lortutako zifrekin bat etor dadin.

En aras de lograr ese objetivo, el Impuesto sobre Sociedades tiene que servir, como el resto de impuestos, para posibilitar la recuperación de la recaudación, de modo que la presión fiscal por este Impuesto sea acorde con las cifras obtenidas por los países de referencia de nuestro entorno europeo.

8.10. Erreformaren beste helburuak

8.10. Sobre el resto de objetivos de la reforma

Zerga sistemaren eginkizun nagusia bilketa da,

La principal función del sistema impositivo es la

aberastasunaren banaketa eta ongizatearen sistema publikoa ziurtatzearren. Era berean, enpresen lehiakortasunaren hobekuntza eta lanaren sorrera mesedetu behar du.

recaudatoria de forma que se asegure el reparto de la riqueza y el sistema público de bienestar. Debe contribuir asimismo a generar un entorno institucional que favorezca la mejora de la competitividad empresarial y la creación de empleo.

Zergak ordainarazteko erabiltzen den moduak, adibidez, hainbat erabaki hartarazi dizkie eragile ekonomikoei; eta erabaki horiek baliabideen esleipenean islatu daitezke, eta kasu batzuetan esleipen optimo batetik urrun egon daitezke.

La forma en que se lleve a cabo la exacción de impuestos, por ejemplo, puede inducir a los agentes económicos a tomar determinadas decisiones y éstas tendrán su reflejo en una asignación de recursos que en algunos casos puede alejarse de una asignación óptima.

Sozietateen gaineko Zergaren kasuan, behin eta berriro errebindikatzen den helburu bat enpresen lehiakortasuna hobetzea da. Lehiakortasuna aipatzen dugunean, uler dezakegu zera dela, enpresek barne zein kanpo merkatuan bere eragina eta sartze-maila mantentzeko eta handitzeko duten gaitasuna; eta horrek berekin dakar aberastasuna eta enplegua areagotzea ere. Mota horretako emaitza bat lortzea inbertsioen eraginkortasun baten ondorio izango da halabeharrez, eta horrek esan nahi du produktibitateak izan beharko lukeela inbertsioak gidatzeko irizpidea, inolaz ere ez fiskalitateak.

En el caso del Impuesto sobre Sociedades un objetivo que se reivindica constantemente es el de mejorar la competitividad de las empresas. Se puede entender aquella como la capacidad de éstas para mantener y ampliar su influencia y penetración tanto en el mercado interior como en el exterior, lo que conlleva a su vez, un aumento de la riqueza y el empleo. Conseguir un resultado de ese tipo solo puede ser consecuencia de una mayor eficiencia de las inversiones, lo que significa que el criterio rector de las mismas debería ser la productividad.

Hala, enpresen mozkina kargatzen duen zerga izanik, zerga-pizgarriek tasa efektibo desberdinak sortzen dituzte inbertsio proiektu desberdinentzat, proiektuen beren ezaugarrien arabera; horregatik, inbertsioa gidatzen duen irizpidea ez da produktibitatea izaten, eskura daitezkeen zerga onurak baizik. Egun planteatuta dauden moduan, zerga-pizgarriak, beraz, oso funtzionaltasun txikikoak dira produktibitatea hobetzeko bidean bultza egiteko unean. Eta eraginkortasun txikiari erantsi egin behar zaio horrelako pizgarriek bilketan duten kostu handia, sarritan zerga kudeatzeko eta likidatzeko garaian sortzen

En este sentido, siendo un impuesto que grava el beneficio de las empresas, los incentivos fiscales generan tipos efectivos distintos para diferentes proyectos de inversión en función de las características de éstos, de modo que no es la productividad el criterio rector de la inversión sino más bien los beneficios tributarios. Los incentivos fiscales tal y como están planteados en la actualidad resultan por lo tanto poco funcionales a la hora de contribuir a la mejora de la productividad. A la poca eficacia hay que añadir el elevado costo recaudatorio de este tipo de incentivos y muchas veces las complicaciones que surgen en

diren arazoekin batera.

Gure iritziz, funtsean bi dira zerga sistematik sustatu behar diren kontuak. Lehena inbertsioak dira, hots, dituzten ondorioak egiten diren enpresatik haratago iritsi eta produkzio-ehun osoari eragiten dioten inbertsioak, funtsean I+Gn egiten direnak. Eta bigarrena neurri txikiko enpresen inbertsioak dira, sarritan ez baitira mailarik egokienera iristen, enpresa horien negoziazio-ahalmen txikiagatik.

I+Gn eta neurri txikiko enpresetan egiten diren inbertsioak sustatzeko ildoari jarraiki, uste dugu Sozietateen gaineko Zergak esparru bat ezarri beharko lukeela enpresen fondo propioak sendotzen laguntzeko; eta bi elementutan oinarrituta: inbertsio fondo bat, kooperatibenaren antzekoa, eta gastu finantzarioen kengarritasuna mugatzea. Aipatutako inbertsio fondoa berrikuntzan, ingurumen babesean, energia berriztagarriko iturrien erabileran eta langileen prestakuntzan egiten diren inbertsioetan gauzatu ahal izango litzateke; izan ere, faktore horiek guztiek enpresen produktibitatean eragiten dute zuzenean.

Ildo honetatik, zerga sistemak mekanismoak ezarri beharko lituzke, halaber, herritarren aurrezkia enpresa-proiektu publiko nahiz pribatu berrien sustapenean inbertitzea bultzatzeko.

Egungo eredu ekonomikoaren krisia ingurumen krisi bat ere bada. Garraio merkean oinarritutako egungo industri eredua bere mugetara ari da iristen, alderdi guztietan: petrolioa agortzen ari delarik gorantz doaz garraio kostuak, merkantzia mugimendu etengabeak kutsadura areagotzen du, etab.

la gestión y liquidación del impuesto.

A nuestro entender son fundamentalmente dos las cuestiones a incentivar desde el sistema tributario. La primera son inversiones cuyos efectos trascienden la empresa en las que se realizan afectando al conjunto del tejido productivo, básicamente las inversiones en I+D. Y la segunda son las inversiones de las empresas de pequeño tamaño que muchas veces no llegan a un óptimo por su escaso poder de negociación.

En esta línea de promoción de las inversiones en I+D y en las empresas de pequeño tamaño pensamos que el Impuesto sobre Sociedades debería establecer un marco que contribuya al reforzamiento de los fondos propios de las empresas que podría articularse en torno a dos elementos: la limitación en la deducibilidad de los gastos financieros y un Fondo de Inversión similar al de las cooperativas. Este último podría materializarse en inversiones en innovación, protección del medio ambiente, en el uso de fuentes de energía renovable y en la formación de personal, factores todos ellos que inciden directamente en la productividad de las empresas.

En este sentido, el sistema fiscal debería establecer asimismo mecanismos para estimular la inversión del ahorro de la ciudadanía en la promoción de nuevos proyectos empresariales tanto públicos como privados.

La crisis del actual modelo económico es también una crisis medioambiental. El actual modelo industrial basado en el transporte barato está llegando a sus límites en todos los aspectos: el agotamiento del petróleo incrementa los costes del transporte, el incesante trajín de mercancías aumenta la

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

Unea da eredu ekonomiko lokalizatuago baterantz jotzeko, tokiko garraioan oinarritua, ezen kokatuta dagoen lurraldera bideratuta egon behar baitu bereziki, eta txertatuta dagoen gizartearekin konprometituta. Beste eredu bateranzko aldaketa horretan, ez litzaioke uko egingo ez kanpoko herrialdeekin merkantziak trukatzeari eta ez euskal enpresen internazionalizazioari, bereziki merkatua mundu mailakoa duten sektoreetan.

contaminación, etc. Ha llegado el momento de transitar hacia un modelo económico más localizado, basado en el transporte local, centrado en el territorio en el que se asienta y comprometido con la sociedad en la que se inscribe, sin renunciar por ello a los intercambios de mercancías con el exterior, ni a la internacionalización de las empresas vascas, especialmente en aquellos sectores en los que el mercado es de hecho mundial.

Gure garapen ekonomikoko ereduak lurraldearekin errespetu handiagoz jokatu behar du, eta, zentzu horretan, ingurumenaren arloko fiskalitatea ere eragile ekonomikoen ekintza eta portaera jakin batzuk sustatu edo zigortzeko tresna bat izan daiteke.

Nuestro modelo económico de desarrollo ha de ser más respetuoso con el territorio y en este sentido la fiscalidad en el ámbito medioambiental también puede ser un instrumento para el fomento o penalización de determinadas acciones y comportamientos de los agentes económicos.

Beste eredu bateranzko bide horretan, kontzeptu berritzaileak nola inplementatu aztertu liteke, hala nola antolakunde ekologistek proposatutako 100 miliako muga, baina zerga araudiari aplikatua.

En esa vía hacia otro modelo, se podría estudiar el modo de implementar conceptos novedosos como el límite de las 100 millas propuesto por las organizaciones ecologistas aplicado a la normativa fiscal.

Azkenean, kontuan hartu behar da araudiko kasu batzuetako hutsuneek eta beste batzuetako gehiegizko konplexutasunak nahi gabeko ondorioak dituztela, adibidez segurtasun juridikorik eza eta zerga elusiorako bideak zabaltzea. Arau sinple batek bizkortasun handiagoa ahalbidetzen du erabakiak hartzeko unean, eta gastu aurrezpena gainera enpresentzat. Ildo honetatik, arau berriak bete behar duen helburuetako beste bat zerga nabarmen sinpleagotzea da, enpresek dituzten obligazio formalak eta errealak argi eta garbi jasoz, hain zuzen segurtasun juridikorik eza saihesteko eta enpresen kostuak minimora eramateko.

Por último, también hay que tener en cuenta que ciertas lagunas en unos casos y excesiva complejidad de la normativa en otros provocan efectos no deseados, como pueden ser la inseguridad jurídica y la apertura de vías para la elusión fiscal. Una norma simple permite una mayor rapidez en la toma de decisiones y un ahorro de gastos para las empresas. En este sentido, otro de los objetivos que ha de cumplir la nueva norma ha de ser el de simplificar el impuesto de manera sustancial, recogiendo de manera clara las obligaciones formales y sustantivas de las empresas de manera que se evite la inseguridad jurídica y se minimicen los costos de las empresas.

Laburbilduz, Sozietateen gaineko Zerga berriak ahalegina egingo du Gipuzkoako enpresek lurraldearekin, langileekin eta ingurumenarekin duten konpromisoa bultzatzeko.

Resumiendo, el nuevo Impuesto sobre Sociedades tratará de impulsar el compromiso de las empresas de Gipuzkoa con el territorio, con las y los trabajadores y con el medio ambiente.

8.11. Erreformaren ildo nagusiak

Goian aipatutako helburuen ildotik, batzorde honen iritziz etorkizuneko Sozietateen gaineko Zergan egin beharreko aldaketek hainbat kontu hartu beharko lituzkete kontuan, honakoak:

1. Zerga berriak muga bat jaso beharko luke zenbait gasturen kengarritasunarentzat, esate baterako ordezkaritza gastu, propaganda eta publizitate gastu, bezeroen arretarako gastu, edo ibilgailu ez industrialetarako gastuentzat, horiek guztiek enpresaren emaitzari egiten dioten ekarpena zalantzakoa baita, are gehiago, elusio iturria bihur daitezke.

2. Araudi berriak amortizazio eskema bat jaso beharko luke, behar beste malgu bat, enpresak bultzatzearren bere produkzio ekipoak modernizatzen inbertitzera. Honek berebiziko garrantzia du enpresa txikien kasuan, ezen lehen aipatu dugun moduan ahalmen txikiagoa dute besteren finantzaketara iristeko

3. Enpresen fondo propioak sendotzeko, arau berriak muga bat jaso beharko luke gastu finantzarioen kengarritasunari dagokionez, enpresen gehiegizko zorpetzea saihesteko, zorpetze hori nolabait zigortuz, eta horrela enpresen fondo propioen hornikuntza bultzatzeko. Kapital propio handiago batek

8.11. Líneas generales de la reforma

En línea con los objetivos arriba mencionados y a modo de conclusiones, esta comisión considera que los cambios a realizar en el futuro Impuesto sobre Sociedades deberían tener en cuenta las siguientes cuestiones:

1. El nuevo impuesto debería introducir una limitación a la deducibilidad de determinados gastos como pueden ser por ejemplo, los gastos de representación, los gastos en propaganda y publicidad, en atención a clientes, o los vehículos no industriales, cuya aportación al resultado de la empresa es dudoso además de poder llegar a ser fuente de elusión.

2. La nueva normativa tendría que contemplar un esquema de amortizaciones lo suficientemente flexible para que incentive a las empresas a invertir en la modernización de sus equipos de producción. Esto es especialmente importante en el caso de las pequeñas empresas que como hemos comentado anteriormente cuenta con un menor poder para acceder a financiación ajena.

3. Con el objetivo de fortalecer los fondos propios de las empresas, la nueva norma debería recoger una limitación a la deducibilidad de los gastos financieros a fin de evitar el excesivo endeudamiento de las empresas, penalizándolo en cierta forma, y potenciar de esa manera la dotación de fondos

sendotasun handiagoa ematen dien enpresei, eta krisi garaiei hobeto aurre egitea ahalbidetzen die.

propios de las mismas. Un mayor capital propio da más consistencia a las empresas y les permite soportar mejor los periodos de crisis.

4. Era berean, araudi berriak jaso egin beharko luke enpresaren irabazietatik abiatuta inbertsio fondo bat hornitzeko aukera; fondo hori hainbat inbertsiotan eta epe laburrean lanpostuak sortuz gauzatuko litzateke. Eta bi ondorio positibo izango lituzke fondoak egoera ekonomikoaren gainean: alde batetik, sendotu egingo lituzke enpresaren fondo propioak hornikuntzaren unean, eta inbertsioa eta enpleguaren sorrera eta finkapena sustatuko lituzke gauzatzeko unean.

4. De la misma manera, la nueva normativa debería contemplar la posibilidad de dotar, a partir de los beneficios de la empresa, un Fondo de Inversión que se materializaría en determinadas inversiones y en la creación de puestos de trabajo a corto plazo. Este fondo tendría dos efectos positivos sobre la situación económica: reforzaría por un lado los fondos propios de la empresa en el momento de su dotación y estimularía la inversión y la creación y consolidación del empleo en el momento de su materialización.

5. Egungo kenkari mordoiloaren tokian, administrazioarentzat zaila baita kudeatzen, gizartearentzat kostu handiak eta ekonomiarentzat zalantzazko eraginak izateaz gain, zerga berriak ikerkuntza eta garapenerako inbertsioetarako kenkari bakar bat jaso beharko luke; eta kenkari honen justifikazioa zera izango genuke, inbertsio horien ondorioek gainditu egiten dituztela inbertsioak egiten dituzten enpresen beren mugak, eta ekonomia osoarentzat onuragarriak direla.

5. La actual maraña de deducciones de difícil gestión para la administración, de elevado coste para la sociedad y de dudosos efectos para la economía tendría que ser sustituida en el nuevo impuesto por una única deducción en las inversiones en Investigación y Desarrollo incluyendo en este concepto las inversiones en protección del medioambiente y en el uso de fuentes de energías renovables, que se justificaría porque los efectos de éstas trascienden los límites de las empresas que las realizan beneficiando al conjunto de la economía.

6. Era berean, segurtasun juridikoa indartze aldera, arau berrian jarri beharko lirateke oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzeko edo aurreko ekitaldietatik datozen eta egin gabe dauden kenkariak aplikatzeko epe laburragoak, preskripzio aldia gainditu ez dadin.

6. Asimismo, la nueva norma con el fin de reforzar la seguridad jurídica debería establecer plazos más reducidos en los que se puedan compensar las Bases Imponibles Negativas o aplicar las deducciones pendientes que provengan de ejercicios anteriores, de modo que no se exceda el periodo de prescripción.

7. Araubide bereziei dagokienez, Batzar Nagusi hauen gomendioari jarraiki araudi berriak

7. En cuanto a los regímenes especiales, siguiendo la recomendación de estas Juntas

kendu egin beharko luke enpresak sustatzeko sozietateen araubidea, ez baitu balio izan sortu zen unean finkatutako helburuak lortzeko.

Generales la nueva normativa debería eliminar el régimen de las Sociedades de Promoción de Empresas que no ha servido para lograr los fines para los que fue creado dicho régimen.

Sartuta gauden egiturazko krisiaren egoerak behartzen gaitu asmo handiko proiektu bat inplementatzera, ekonomia berriz suspertzeko eta bizitzea tokatzen ari zaizkigun munduko desafioei egokitzeko, toki mailakotik abiatuta eta mundu mailakorantz joz.

Nazioarteko eszenatokietan balioa agerian jartzeak garapen ekonomikoari laguntzen dio. Internazionalizazioa behar saihestezina da Gipuzkoako ekonomiarentzat, kanpora irekita indartzen baitira gure enpresak, eta enplegua eta aberastasuna sortzen herrian.

Aukera ekonomikoek, enpresen jarduerak eta haien garatzeko gaitasunak lurralde aurreratuak eta modernoak behar dituzte. Euskadik modernizatzen jarraitu behar du eta bere garapen-estrategiaren plangintza egin behar du.

Ekonomia berritzaileek ezaugarri jakin batzuk dituzten lurraldeak behar dituzte: kanpokoarekiko loturak egiteko maila handiko gaitasuna, komunikazio aurreratuak eta teknologia-garapen indartsua, azken batean, kapital fisiko eta inteligentearen sorrera, eta kohesio sozialerako estrategia batekin engaiatuta daudenak.

Erakundeen ekintzek jarduera ekonomikoa baldintzarik onenetan garatzeko baldintza egokiak sortzean egin behar dute indarra, eta baita lurraldea erakargarria izan dadin ere inbertsiorako, jakintzarako, enpresarentzat eta aberastasuna sortzeko.

Erakundeen ekintza beharrezkoa izan da Gipuzkoako ekonomiari eusteko, eta etorkizunari begira ere guztiz ezinbestekoa da eta izango da. Erabakigarriak dira orekaren eta balioa sortzen duten azpiegituren aldeko apustu tinkoa egitea.

Ekonomia-krisi sakonak zerga-bilketa asko murriztea ekarri du, eta ez da aurreikusten epe laburrera modu nabarmenean suspertuko denik.

3. Harmonizazioaz

Zergen harmonizazioa, koordinazioa eta lankidetza zerga-erreforma ororen osagai giltzarria da gure herrian. Beraz, beharrezkoa ez ezik, exijitu beharrekoa da hala izatea.

Gainera, edozein zerga-erreforma Zergen Koordinaziorako Organoan adostu behar da. Haren misio nagusia da foru-aldundien arteko harmonizazioa, koordinazioa eta lankidetza bultzatzea, beren zerga-eskumenak egikaritzeko garaian, zergen kudeaketan eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Ia hizlari guztiak harmonizazioaren alde mintzatu dira, sinplifikatzearen, segurtasun juridikoaren eta herri-ikuskeraren sinonimoa dela uste baitute.

Baina, horretaz gainera, eta nazioarteko testuinguruan, Sozietateen gaineko Zergaren erreformak kontuan hartu beharko du Europar Batasunetik datorren Sozietateen gaineko Zergaren oinarri erkideak erregulatzeko araugintza, zeinak, gaur egun proiektu bada ere, krisiaren eraginez abiada hartu baitu.

4. Enpresaz eta aberastasuna sortzeaz

Sozietateen gaineko Zergaren erreformak zabaldu egin du enpresek eta horiek osatzen dituzten pertsonek, jarduera eta enpleguaren sortzaile gisa, gure

gizartean betetzen duten eginkizunari buruzko eztabaida; eta baita erakunde publikoei egokitu behar zaien zereginari buruzko eztabaida ere; azken horien zeregina da, besteak beste, enpresak eratu eta garatu ahal izateko aldeko ingurune, testuinguru eta baldintzak sortzea, enpresei beren modernizazioan eta biziraupenean lagunduta, enpresa berrien eta ekintzaileen sustapenari eta sorrerari lagunduta, herriaren garapen ekonomiko iraunkorraren euskarri izango den industria-politika produktiboa bultzatuta, eta jakintzari eta berrikuntzari lotutako jarduera produktiboen aldeko apustua eginda, aberastasuna eta enplegua sortzen baitute jarduerok.

Azken batean, erakunde publikoei dagokie lurralde lehiakor bat sortzea, non enpresak eroso sentituko baitira merkatuetan lehiatzeko.

Bidezkoa da adieraztea Gipuzkoako enpresa askok egin duten eta gaur egun egiten jarraitzen duten ahalegin izugarria enpleguari eusteko eta sortzeko, oso inguruabar kaskarretan.

5. Enpresen forma juridiko desberdinez eta horien tamainaz

Zergaren erreformari buruzko eztabaidak mahai gainean jarri du enpresen forma juridikoaren eta horien tamainaren kontua, eta baita modu positiboan diskriminatu behar ote diren ere beren tipologiaren arabera.

Azpimarratzekoa da Gipuzkoako sare ekonomikoa batez ere 2 tipologiako enpresetan oinarritzen dela: kooperatibak eta ETEak (batez ere mikroETEak).

Enpresen forma juridikoak kasu jakin batzuetan mgak eta murrizpenak ezartzen dizkie sozietateen jarduerei, eta horiek kontuan hartu behar dira.

Muga horiek sozietate forma jakin batzuentzat arautzen ditu legeriak, eta, horien ondorioz, enpresek lurraldearekin konpromiso maila handiagoa edukitzen dute oro har.

Era berean, enpresaren tamaina ere osagai bereizgarri bat izan daiteke jarduera garatzeko, finantzaketa lortzeko edo laguntzez eta/edo kenkariez baliatzeko.

Horregatik, batzuen eta besteen tributazioari dagokionez, zenbait desberdintasun, hala badagokio, ezartzea edo mantentzea kontuan hartzeko aukera planteatu zaigu. Aintzakotzat hartu beharko genuke hori.

Enpresen forma juridikoari dagokionez sortzen den beste kontu bat zera da, tresna finantzario desberdinetan inbertitzeko fondoak erakartzeko jardueran aritzen diren sozietate jakin batzuei aplikatu beharreko tributazioa. Inbertsio kolektiboko instituzio horiek ez dira ohiko sozietateak, baizik eta errenta-tresnak eta, horrenbestez, tributazioak kontuan hartu behar ditu horien ezaugarri bereziak.

Era berean, enpresaren neurriaren arabera karga mota desberdinak ezartzea egokia ote den jartzen da zalantzan. Egia bada ere neurriak zerikusi handirik ez duela enpresen jarduerarekin, erabilpen sozialarekin edo merkatuan kokapen nagusi bat mantentzearekin, egia da, halaber, neurri txikiko enpresak direla iraun ahal izateko baliabide gutxien dituztenak.

6. Egungo Sozietateen gaineko Zergaz

Komeni da dokumentu honetan gogora ekartzea gaur egun Gipuzkoan indarrean dagoen Sozietateen gaineko Zergaren ezaugarriak. Maila kuantitatiboan, datu garrantzitsuenak honakoak dira:

Sozietateen gaineko Zergaren bidez Gipuzkoan egiten den bilketak jaitsiera izan du 2007ko ekitaldiaz geroztik; urte hartan lortu zuen goia jotzea, 556 milioi eurorekin, Sozietateen gaineko Zerga aldatu zen ekitaldi berberean.

2008ko ekitalditik aurrera, krisia hastearekin batera, Sozietateen gaineko Zergaren bidezko bilketak zerga sisteman duen pisuak beherantz egin du: bildutako kopuru osoaren % 11-12 izatetik, batez beste, % 6,7 izatera igaro da 2011ko ekitaldian, eta gainera beste foru lurraldeetan edo lurralde erkidegoan duena baino txikiagoa da.

2008ko ekitaldiaz geroztik zergabilketan egondako % 54ko murrizketa hori bat dator enpresen irabaziek, kontabilitate emaitzen arabera, edukitako % 53ko murrizketarekin.

Bitartean, gainerako zergek % 10eko jaitsiera izan zuten, eta horrek erakusten du Gipuzkoako enpresek egindako ahalegin handia enpleguari eusteko, eta, beraz, baita beste zerga batzuen bidez zerga-sarrerei eusteko ere.

Sozietateen gaineko Zergaren bidezko bilketaren jaitsiera izugarri horrek, beste zerga batzuen bilketan izandako jaitsiera txikiagoarekin batera, Sozietateen gaineko Zergak BPGrekiko eta gainerako zergekiko duen pisua aldatzea eragin du.

Sozietateen gaineko Zergaren bidezko bilketaren kontzentrazio maila oso altua da. Gipuzkoan, 50 enpresak sartzen duten kuotarekin guztirako bilketaren % 20 osatzen da.

Krisialdiak ondorio adierazgarririk izan ez badu ere aitortzaile kopuruan, antzeman da, bai horixe, enpresen kontabilitateko emaitzetan.

2010eko ekitaldiko batez besteko tasa nominala % 25,3koa izan da, eta batez besteko tasa efektibo erreala % 18,5ekoa; alde handiak ikusten dira, halaber, forma juridikoaren arabera: sozietate anonimoen kasuan, tasa % 20,5ekoa, sozietate mugatuetan % 21,5ekoa, eta kooperatibetan % 5,2koa.

Enpresen kontabilitateko emaitzak izan duen jaitsiera garrantzitsuaren ondorioz, eta karga tasa nominala eta efektiboa jaitsi eta beste zerga beherapen batzuk ere izan direla, zergaren emaitzak nabarmen egin du behera.

Sozietateen gaineko Zergako aitorpenetan gehien-gehienak Gipuzkoako foru araudiari lotuak dira, gutxi gorabehera % 97; araudiaren arabera oinarri likidagarriaren banaketa eginik, berriz, gipuzkoar araudia duten enpresen partaidetza % 82,2raino jaisten da, eta zergaren emaitzari erreparatuz gero, % 70era.

Gipuzkoako ekonomia sarean kooperatibak eta ETEak asko dira, eta, horren eraginez, Gipuzkoako araudiari lotutako enpresen batez besteko tasa nominala beste erakundeenaren azpitik dago.

Aldi berean, inbertsioagatiko kenkari gehiago aplikatzeagatik tasa efektibo errealean duen aldeak iradokitzen du erakunde pribatuak interes publikoarekin ondo lerrokatuta daudela, erakunde publikoetatik sustatzen diren neurriak erabiliak izaten ari diren neurrian

Krisiaren ondorioek arrastoa laga dute, era berean, enpresek egindako inbertsioetan. Izan ere, 2010eko urtearen amaieran % 49ko jaitsiera metatzen zuten 2007koekiko, batik bat aktibo finko materialetako inbertsioaren jaitsieragatik. Dena den, krisiaren eraginak ez dira antzeman enpresek I+Gn egindako inbertsioetan.

Sozietateen gaineko Zergaren erreformari ekiteko datu bat zera dugu, geroko epeetako errenta positiboekin konpentsatu ahal izango diren oinarri ezargarri negatibo metatuek iritsitako bolumen ikaragarria. 2010eko urtearen amaieran aplikatzeko dagoen zenbatekoa 4.657 milioi eurokoa da.

Beste hainbeste esan dezakegu kuota-gutxiegitasunagatik aplikatzeke geratutako kenkariei buruz, hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango baitira halaber. Kuota-muga duten kenkarien baturak, data berean, 906 milioi euro egiten ditu, eta mugarik gabeko kenkariak 207 milioiko kopurura iristen dira.

7. Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren beste alderdi batzuk

A) *Sozietateen gaineko Zergari dagokionez Ogasuneko Departamentuko kudeaketa eta ikuskaritza organoek metatutako esperientziak agerian laga ditu alderdi garrantzitsu batzuk. Laburki azalduko ditugu hurrena, ondoko paragrafootan*

Berrinbertsioagatiko salbuespena zalantzan jartzera iritsi da, egun duen konfigurazioan; izan ere, ustez administrazioarentzat kuantifikatu ezina den zerga onura bat sortzen du. Horregatik, gomendatu da figura hori, hala badagokio, aldatzea, exijitu beharreko informazioa hobetzea, eta arautzea. Kontu hori aztertu egin beharko litzateke horri buruzko erabakia hartzeko.

Komertzio finantzario inplizituaren fondoaren kengarritasuna mantentzea ere zalantzan jarri da, ustez zaila baita aktiboak baloratzea.

Kenkariei dagokienez, oso eragin handia dutenez bilketan, horiek kontrolatzea eta egiaztatzea konplexua dela planteatu da, eta eskatu da organismo publikoek egiaztatzea haien egokitasuna.

Aurrekoaren antzeko gaia dugu mezenasgoarena, Sozietateen gaineko Zergako eta PFEZko kuotako gastu kengarriak eta kenkariak jasotzen baititu, eragin handiz inolaz ere bilketan. Horregatik, lehentasunezko jarduerak berrikustea komeni dela planteatu da.

Araubide bereziei dagokienez, enpresak sustatzeko sozietateen araubidea berrikusi beharko litzatekeela planteatu da, eta, hala badagokio, modu zehatzagoan arautu.

Neurri batean salbuetsirik dauden erakundeei dagokienez, planteatu da alderdi politikoei aplikatzen zaizkien onura gehigarriak kentzea egokia izan litekeela, araubidearen kudeaketa eta kontrola sinplifikatzeko.

FEAC eragiketei dagokienez, zerga mailan eta bilketan bertan oso garrantzitsuak diren eragiketa horiek hobeto kontrolatzeko aukerak aipatu dira.

Kooperatiben zerga-araubideak, beste forma juridiko batzuk dituzten gainerako entitateekin alderatuta, zerga onurak eskaintzen dituela ere aipatzen da, soberakinaren zati handi bat berrinbertitzen dutela onartuta.

Eta oro har zerga onura batzuk kentzea edo aldatzea komeni ote den aztertzeko aukera plateatzen da, esate baterako, interes ekonomikoko elkarteen kapitalera egindako ekarpenengatiko kenkaria.

Eta hori guztia gainerako lurraldeekin harmonizatuta.

***B)** Bestalde, Batzar Nagusietan agerraldia egin duten hizlariek ekarpen asko egin dituzte eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko beren ikuspuntua islatu dute. Hemen jarraian azaltzen dira laburki:*

Oro har, hizlariak fiskalitatearen helburuetan oreka lortzearen alde mintzatu dira, ongizate-estatua mantentzeko beharrezkoa den zerga-bilketari eta hura politika ekonomikorako tresna gisa erabiltzeari dagokionez, nahiz eta Sozietateen gaineko Zergak bete behar duen zereginari buruzko iritzian zehazki ez diren bat etorri. Gehienen ustez, Sozietateen gaineko Zerga giltzarria da jarduera ekonomikoa eta lehiakortasuna pizteko, Sozietateen gaineko Zergaren bidez bildutakoa bilketa osoaren zati gisa hartuta.

Euskal erakundeen egungo antolaketaren formulazioari buruzko ñabardura batzuekin bada ere, ia hizlari guztiek zerga lurraldeen artean harmonizatzearen alde hitz egin dute.

Zergaren sinplifikazioa, segurtasun juridikoa eta zergaren egonkortasuna eta iraunkortasun bokazioa modu positiboan baloratu dituzte hizlariek, eta gehienek aipatu dute beharrezkoa dela kontabilitate emaitza oinarri ezargarriari hurbiltzea, eta informazioaren baldintzak hobetzea eta berrikustea.

Zehazkiago, gastuen kengarritasunari dagokionez, irizpide orokorra izan da halaber efektiboa mugatzeko neurriak babestea —iruzurraren aurkako neurritzat hartzen direnak—, eta baita ildo horretako beste edozein neurri ere.

Amortizazioei dagokienez, gehienak bat datoz ETEak bereizi behar direla eta amortizazioen eskema berritu behar dela esatean.

Enpresen kapitalizazioa hobea izatea sustatzeko zenbait alternatiba egituratu dira. GFAren hasierako azterlanean egiten zen finantza-gastuen kenkaria mugatzeko proposamenari beste batzuk kontrajarri zaizkio, hala nola balantzeak eguneratzeko aukera izatea, "notional interest" delakoa, erabilgarriak ez diren erreserbei kenkariak aplikatzea eta abar.

Kenkariei dagokienez, hizlari batzuk guztiak kentzearen alde azaldu badira ere, gainerakoek, oro har, positiboki baloratu dituzte, eta berrikuntzari, enplegua mantentzeari, prestakuntzari eta inbertsioari aplikatzen zaizkion kenkariak mantentzea defendatu dute, eta, egitekotan, berrikusi egin beharko liratekeela, helburu publikoekin bat datozela ziurtatzeko. Horien segurtasun juridikoa eta eraginkortasuna eta zerga-gastu txikiagoa izatea bermatzeko, positiboki baloratu dira horiek kontrolatzeko neurriak, hala nola nahitaezko ziurtapenak, aldez aurretiko kontrolak eta abar.

Aplika litezkeen beste zerga-onura batzuei dagokienez, nazioarteratzeari eta enpresa berriak sortzeari laguntzea izan da gehien aipatu dena, beste batzuekin batera, hala nola giza garapen iraunkorra defendatzen duten jarduerak sustatzea, gizarte-ekonomia eta ekonomia produktiboa, Business angels, patent box edo mikroeteentzat edo ETEentzat oro har onuragarriagoak diren neurriak.

Oinarri ezargarri negatiboak eztabaidatuak izan dira. Batzuek preskripzio epera mugatu dute, eta beste batzuek, aldiz, oinarri ezargarri negatiboen konpentsazioa mantendu beharrekoa dela baloratu dute, balantzeari eta enpresaren finantzaketari eragiten dielako. Egin dituzten ekarpenak izan dira konpentsazioa mugatzea, baina epea mantenduta, carry back-a, ez konpentsatzea aldi baterako neurria izan dadila, edota araubide iragankor baten beharra.

Hizlari guztiek azpimarratu dute enpresak sustatzeko sozietateen araubidea sakon berrikusi behar dela; batzuek kentzeko eskatu dute, eta, mantentzekotan, sortu zirenean zituzten helburuak modu egokiagoan bete ditzatela.

Enpresen forma juridiko eta tamaina desberdinei buruz, enpresak beren forma juridikoagatik bereiziko dituen sistema bat defendatu dute oro har, eta ETEak babes daitezela, zaurgarriagoak direlako eta finantzaketa lortzeko eta kenkariez baliatzeko zailtasun handiagoak dituztelako.

Eta, azkenik, karga tasei dagokienez, bai tasa nominalean eta bai tasa efektiboan jarrerak elkarren aurkakoagoak izan dira, eta zentzu guztietako proposamenak egin dira: goranzkoak edo beheranzkoak, ETEen egoera hobetzea, eta baita irabaziaren araberako tasa progresiboak ezartzeko proposamenak ere.

8. Erreformaren helburua epe luzera begira

Sozietateen gaineko Zergan planteatzen den edozein erreforma sakonek abiapuntu behar du bete beharreko helburuei buruzko ahalik eta kontsentsurik zabalena; eta helburu horiek ezin dira isolatu dokumentu honetako lehengo puntuetan aztertutako testuinguru orokorretik.

Gauden testuinguruan, krisi ekonomiko sakonak 2006an lortutako mailetara eraman du diru-sarrera publikoen bilketa, eta ez da aurreikusten epe laburrera zergen bidezko sarrerak igoko direnik; gainera, gastuei dagokienez, ongizate-

estatua mantentzeko gero eta behar handiagoak ari dira sortzen. Hala, beharrezkoa da zerga figura bakoitza aztertzea eta baita ere zer neurritan ari den betetzen berez dagokiona.

Horretarako, beharrezkoa da, zerga politikak bilatu behar duen ekitatearen eta eraginkortasunaren ohiko helburuak indartzeaz gainera, oraingo testuinguru ekonomiko-finantzarioan garrantzi berezia duten 2 helburu erdigunean jartzea: zerga bilketa behar bestekoa izatea eta ekonomia suspertzea.

Helburu horiek premisa bat eduki behar dute: zerga iruzurra errotik kentzea. Horretarako, neurriak proposatu eta jarduerak garatu beharko dira, disuasioa indartzeko eta iruzur egiteko moduak jazartzeko, eta zerga elusiorako bideak kentzeko; era berean, informazioari eta kontrolari dagozkion betebehar gehiago ezarri beharko lirateke, zergaren kudeaketa arindu eta sinplifikatuko dutenak, gastua arrazionalizatuko dutenak eta eraginkortasuna handituko dutenak.

Hori guztia, zerga subiranotasun bat (zuzeneko zergetara mugatzen dena, zeharkakoen gaineko kudeaketa gaitasunarekin eta gizarte kotizazioen gaineko eskumenik gabe) ezartzen digun esparruaren barruan.

Testuinguru horretan, ezartzen dugun helburu orokorra da ekonomia eta zerbitzu publikoak indartzea, herritarren ongizatea bermatzeko eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko moduan, enpresak indartzearen, berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzearen eta enplegua mantendu eta sortzeko gaitasunaren bidez.

Zerga-bilketaren gehikuntzak tributazioa hobetzetik etorri behar du, enpresen tributazioaren alorrean zerga neurri aurreratuagoak sartuta, gure ekoizpen sarea indartzea eta lehiakor bihurtzea lortzeko, bai eta aberastasuna eta enplegua sortzearen alorrean ere, jarduera ekonomikoa handitzean, zeinak oinarri handiagoa eragingo baitu bai Sozietateen gaineko Zergan eta bai gainerako zergetan.

9. Erreformaren beste helburuez

Zerga sistemaren zeregin nagusia dirua biltzea izanik, fiskalitateak beste helburu batzuk eduki behar ditu, hala nola zerga neurriak baliatzea politika ekonomikorako tresna gisa.

Baina fiskalitatea lehiakortasuna bultzatzeko ere bada giltzarria. Sozietateen gaineko Zergak lehiakortasun handiagoa sortzeko eta inbertsioa errazteko balio behar du, enpresak indartzearen alde egiteko, eta enplegua gehitu eta sortzeko.

Administrazio Publikoak helburu gisa eduki behar du enpresek mundu gobalizatu batean lehiatu ahal izateko aldeko eszenatoki bat osatzea.

Zerga pizgarriak helburu batzuk lortzeko ezarri ziren, eta beharrezkoa da helburu horiek betetzea. Horregatik, etengabeko kontrola egiten da, informazioaren ekarpena egitean, aurretiazko kontroletan edo aurretiazko nahitaezko homologazioetan hobekuntzak egiteko aukerarik badagoen aztertuta, bi aldeen segurtasun juridikoaren berme gisa.

Zerga berriak oraingoaren osagai giltzarriak mantendu egin behar ditu: aktibo finko arrunt berrietan inbertsioak egiteagatiko kenkaria, enpleguari dagokiona eta ikerketa, garapena eta berrikuntzari laguntzekoa, eta ingurumena errespetatzekoa; eta, era berean, ezarri zituzteneko helburuak betetzen ez dituzten kenkariak berrikusi eta, hala badagokio, kendu egin behar dira.

Gainera, osatu egin behar litzateke, beste neurri batzuk sartuta: enpresen kapitalizazioa eta nazioarteratzea sustatzekoak, kanpoko merkatu berriak bilatzekoak eta industria jabetza garatzekoak, besteak beste.

Bestalde, aurkako faktore asko eduki arren ahalegin handia egin eta beren enplegu mailari eusten dioten enpresak babestu behar ditu, eta ahalegin berezia egin horiekin.

Gainera, neurri txikiko enpresak babestu behar dira, zaurgarriak direlako eta nazioarteko ingurunean edo ingurune berritzailean sartzeko zailtasunak dituztelako; hala, enpresen tamaina handitzeko lankidetza neurrien alde egin behar da, edota zerga irabazietan neurri egokiagoak edo mesedegarriagoak ezarri.

Era berean, mekanismoak ezarri behar dira herritarren aurrezkia enpresa-proiektu berrien sustapenean inbertitzea bultzatzeko.

Azkenik, arau berriak bete behar duen helburuetako beste bat zerga nabarmen sinpleagotzea da, enpresek dituzten obligazio formalak eta errealak argi eta garbi jasoz, hain zuzen segurtasun juridikorik eza saihesteko eta enpresen kostuak minimora eramateko.

Laburbilduz, Sozietateen gaineko Zerga berriak ahalegina egingo du Gipuzkoako enpresek lurraldearekin, langileekin eta ingurumenarekin duten konpromisoa bultzatzeko, bai eta Foru Aldundiak enpresekin duen konpromisoa ere.

10. Erreformaren ildo nagusiak

Goian aipatutako helburuen ildotik eta ondorio gisa, Batzorde honen iritziz, etorkizuneko Sozietateen gaineko Zergak kontu hauek aztertu eta, hala badagokio, jaso beharko lituzke:

***1.-** Aztertu eta, hala badagokio, berriz hausnartzea, muga bat ezartzea zenbait gasturen kengarritasunarentzat, esate baterako ordezkaritza gastu, propaganda eta publizitate gastu, bezeroen arretarako gastu, edo ibilgailu ez industrialetarako gastuentzat, horiek guztiek enpresaren emaitzari egiten dioten ekarpena zalantzakoa baita, are gehiago, elusio iturria bihur daitezke.*

2.- *Aztertu eta, hala badagokio, berriz hausnartzea amortizazio eskema bat jasotzea, behar bezain malgua izango dena, enpresak bultzatzearren bere produkzio ekipoak modernizatzeko inbertitzera.*

3.- *Enpresen fondo propioak sendotzeko, arau berriak enpresa kapitalizaziorako neurriak jaso beharko lituzke, horrela enpresen fondo propioak bultzatzeko. Kapital propio handiago batek sendotasun handiagoa ematen dien enpresei, eta krisi garaiei hobeto aurre egitea ahalbidetzen die.*

4.- *Era berean, araudi berriak jaso egin beharko luke enpresaren irabazietatik abiatuta inbertsio fondo bat hornitzeko aukera; fondo hori hainbat inbertsiotan eta epe laburrean lanpostuak sortuz gauzatuko litzateke. Eta bi ondorio positibo izango lituzke fondoak egoera ekonomikoaren gainean: alde batetik, sendotu egingo lituzke enpresaren fondo propioak hornikuntzaren unean, eta inbertsioa eta enplegua sustatuko lituzke gauzatzeko unean.*

5.- *Zerga berriak oraingoaren osagai giltzarriak mantendu egin behar ditu: aktibo finko arrunt berrietan inbertsioak egiteagatiko kenkaria, enpleguari dagokiona eta ikerketa, garapena eta berrikuntzari laguntzekoa, ingurumenari dagokiona; eta, era berean, ezarri zituzteneko helburuak betetzen ez dituzten kenkariak berrikusi eta, hala badagokio, kendu egin behar dira.*

Neurri berriak ere jaso behar ditu, nazioarteratzearen eta kanpoan merkatu berriak bilatzearen alde egiteko, industria jabetza garatzeko, eta baita mikroeteak eta ETEak I+G+Bz baliatu ahal izatearen aldeko neurriak ere.

6.- *Era berean, arau berriak kontuan izan behar luke oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzeko kasuei mugak ezartzea.*

7.- *Araubide bereziei dagokienez, Batzar Nagusi hauen gomendioari jarraiki, araudi berriak berrikusi egin behar luke eta, hala badagokio, modu zehatzagoan arautu sortu ziren unean finkatutako helburuak lortzeko balio duten enpresak sustatzeko sozietateen araubidea.*

8.- *Era berean, Atzerriko Baloreetarako Edukitza Entitateei eta Ondare Sozietateei dagokienez, horiek berrikustea kontuan hartu beharko litzateke, horiei buruzko erabaki egokia hartu ahal izateko.*

9.- *Azkenik, zergako aldaketa orokorrek berdin eragingo diete oro har sozietateei eta sozietate kooperatiboei, eta egin beharreko aldaketen garrantzia kontuan hartu beharko da.*

10.- *Sozietateen gaineko Zerga berriari buruzko eztabaidan, arau iraunkor bat lortzea da Gipuzkoako Batzar Nagusien helburua. Koiuntura konplexu batean bagaude ere, zergaren erregulazio berria ez da egoeraren araberako arazoei aurre egiteko bakarrik jaio, baizik eta denboran irauteko gai eta egoki izango den esparru bat finkatzeko. Eta, horretarako, beharrezko araubide iragankorrak zertu eta erabaki beharko dira, enpresa-jarduerak denbora izan dezan esparru berrira egokitzeko.*

11.- *Batzar Nagusien ustez, onartzen den araudi berriak gainerako lurraldeekin harmonizatuta egon beharko du, eta hura Zerga Koordinaziorako Organoan eztabaidatzeko beharrezkoak diren mekanismo guztiak ezarri beharko dira.*

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

Grupo Juntero Popular
Batzarkide Talde Popularra

AL PRESIDENTE DE LA PONENCIA SOBRELA REFORMA DEL IMPUESTO DE SOCIEDADES.

D. Juan Carlos Cano Aristoy, portavoz del Grupo Juntero Popular, a través del presente escrito, de acuerdo con lo previsto en el art. 43 del Reglamento, presenta el siguiente **VOTO PARTICULAR** al informe de conclusiones elaborado por la Ponencia del Impuesto de Sociedades.

San Sebastián, a 27 de junio de 2012

Fdo. Juan Carlos Cano Aristoy
Portavoz Grupo Juntero Popular

PONENCIA SOBRE LA REFORMA IMPUESTO SOCIEDADES.

INTRODUCCION.

1. La Reforma del Impuesto de Sociedades debe procurar una recaudación suficiente a las arcas públicas pero esta finalidad se debe cohestar con la consecución de objetivos de la política económica como son el favorecimiento de crecimiento económico y la promoción de la competividad de empresas, que a su vez genere una mayor recaudación y una disminución del desempleo.

2. Si la Diputación Foral de Gipuzkoa se fija como único objetivo de su reforma unos niveles recaudatorios satisfactorios, obviando las consecuencias que esa carga impositiva tuviera en el tejido empresarial, podría generar un aumento recaudatorio a corto plazo, pero condicionaría la recaudación futura, al afectar negativamente al conjunto de las empresas. Al mismo tiempo, una reforma que olvidara las necesidades recaudatorias en aras de lograr unos objetivos de política económica, que disminuyera la carga impositiva hasta niveles bajísimos, desdibujaría la naturaleza del impuesto de Sociedades.

3. Por otra parte, la fiscalidad es un elemento de competitividad, por lo que la Diputación de Gipuzkoa debería crear un marco favorable para el desarrollo de empresas competitivas y para atraer y retener la inversión, talento científico y la iniciativa empresarial.
   La única vía eficaz para crear empleo es estimular el crecimiento económico y por ello se precisa una política fiscal que incentive y favorezca la inversión y competitividad empresarial.

4. El Partido Popular aboga por una reforma estructural e integral que aporta seguridad jurídica a las decisiones que se adopten, que responda a criterios de política económica y no sólo presupuestarios o recaudatorios que nos acerque a la convergencia fiscal con Europa en el Impuesto de Sociedades, que no distorsiona el espacio fiscal armonizado en los tres Territorios Históricos para evitar la relocalización de contribuyentes o distorsiones competitivas entre empresas, que no desinactive vía impositiva el crecimiento y el empleo. También apoyamos la simplificación estructural del impuesto fundamentalmente en el Capítulo de deducciones. Se propone simplificar los requisitos y límites de aplicación, para facilitar el acceso de las Pymes a los mismos.

CUESTIONES CONCRETAS A INTRODUCIR Y RESOLVER.

1. EMPRENDEDORES. EXENCIÓN IMPUESTO DE SOCIEADES A EMPRESAS DE NUEVA CREACION DURANTE LOS 2 PRIMEROS AÑOS.

a) No entraña costes de recaudación ya que las empresas de nueva creación difícilmente en sus primeros años consiguen beneficios, pero sí supone un impulso al aprendizaje y evita costes administrativos.

2. **TIPOS DE GRAVAMEN REDUCIDO.**
   Tipos de gravamen reducido por mantenimiento o creación de empleo para entidades con plantilla media inferior a 25 empleados e importe neto de cifra de negocios inferior a 5 millones de euros: **tipo 20%.**

3. **AMORTIZACIÓN ACELERADA PARA PYMES.**
   Mejorar la situación financiera y potenciar las posibilidades de inversión.

4. **MANTENIMIENTO DEDUCCIONES POR EMPLEO, FORMACIÓN, MEDIO AMBIENTE, INVERSION Y REINVERSION BENEFICIOS.**

   Deducción por empleo, formación, inversión, innovación y medio ambiente son una fuente importante para mantener y elevar la competividad empresarial, y asegurar el potencial recaudador del Impuesto de Sociedades en el futuro.
   Promover la inversión mediante la reinversión de beneficios es una vía importante tanto para consolidar el empleo como para garantizar la contribución en el futuro a la riqueza del territorio.

5. **PERFECCIONAMIENTO DEL TRATAMIENTO FISCAL PARA FOMENTO DE ACTIVIDADES DE I+D+I.**
   Las deducciones de I+D+I han promovido que Gipuzkoa se mantenga como territorio con mayor grado de avance de I+D+I, por encima de la UE.
   La realización de informes motivados por SPRI tienen sus limitaciones y deben establecerse otros mecanismos de certificación complementarios. Sí se establece que estas deducciones vienen acompañadas de certificación por entidad homologada, los costes de la certificación deben ser deducibles.

6. **RECUPERAR DEDUCCIÓN POR INTERNACIONALIZACIÓN.**
   Mercados exteriores: únicos mercados.
   Necesidad de poner todos los instrumentos para favorecer la internalización de empresas: salvavidas para empleo y la empresa.

7. **INCENTIVAR LA CAPITALIZACIÓN DE LAS EMPRESAS.**

8. **INCENTIVAR LA AGRUPACIÓN EMPRESARIAL Y LA DIVERSIFICACIÓN Y PROMOCIÓN EMPRESARIAL.**

9. **REGULAR UN IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES ARMONIZADO EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA.**

San Sebastián, a 27 de junio de 2012

Fdo. Juan Carlos Cano Aristoy
Portavoz Grupo Juntero Popular

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA ALDATZEARI BURUZKO TALDE TXOSTENGILEKO LEHENDAKARIARI

Juan Carlos Cano Aristoy, Talde Popularra batzarkide taldeko bozeramaileak, idatzi honen bidez, Araudiko 43. artikuluaren arabera, honako boto partikularra aurkezten dio Sozietateen gaineko zerga aldatzeari buruzko Talde Txostengileak eginiko ondorioen txostenari.

Donostian, 2012ko ekainaren 27an.

Juan Carlos Cano Aristoy
Talde Popularra batzarkide taldeko bozeramailea

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA ALDATZEARI BURUZKO TALDE TXOSTENGILEA

HITZAURREA

1. Sozietateen gaineko zergaren erreformak funts publikoentzako diru-bilketa nahikoa lortzen saiatu behar du, baina helburu horrek politika ekonomikoaren beste helburu batzuekin batera joan behar du, hala nola ekonomiaren hazkundeari laguntzea eta enpresen lehiakortasuna sustatzea, horrek ere bilketa handitzen eta langabezia gutxitzen baitu.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak erreformaren helburu bakartzat diru-bilketarena ezartzen badu, kontuan hartu gabe zerga-zama horrek enpresen ehunean dituen ondorioak, epe laburrean bilketa handitu liteke, baina etorkizuneko bilketa baldintzatuko luke enpresak oro har kaltetzeagatik. Aldi berean, erreformaren helburuak ez balitu kontuan hartuko diru-bilketaren beharrak eta politika ekonomikoaren xedeak lortzearren zerga-zama asko jaitsiko balu, sozietateen gaineko zergaren izaera itxuragabetuko litzateke.

3. Bestalde, fiskalitatea lehiakortasunerako elementu bat da, beraz Gipuzkoako Aldundiak enpresa lehiakorrak garatzea erraztuko duen esparru bat sortu behar luke, inbertsioa, ahalmen zientifikoa eta enpresa-ekimena erakartzeko eta atxikitzeko balioko duen esparru bat.
   Enplegua sortzeko bide eraginkor bakarra hazkunde ekonomikoa sustatzea da, eta horregatik behar da inbertsioa eta enpresen lehiakortasuna sustatuko eta lagunduko dituen politika fiskal bat.

4. Alderdi Popularrak defendatzen duen erreforma egiturazkoa eta integrala da, eta funtzio hauek bete behar ditu: hartzen diren erabakiei segurtasun juridikoa ematea, politika ekonomikoko irizpideei erantzutea eta ez soilik aurrekontu-irizpideei edo zerga-bilketakoei, sozietateen gaineko zergan Europarekin bateratzen laguntzea, hiru Lurralde Historikoetako eremu fiskal harmonizatua ez kaltetzea zergapekoen edo enpresen arteko birkokatze edo distortsio lehiakorrak ekiditearren, eta hazkundearen nahiz enpleguaren suspertzea ez geldotzea. Zergaren egitura soiltzearen alde gaude, batez ere kenkarien kapituluan. Ezartzeko baldintzak eta mugak sinplifikatzea proposatzen dugu, enpresa txiki eta ertainei sarbidea errazteko.

ERANTSI ETA ERABAKI BEHARREKO KONTU ZEHATZAK

1. EKINTZAILEAK. ENPRESA SORTU BERRIAK SALBUESTEA LEHENENGO BI URTEETAN.

a) Diru-bilketa ez du kaltetzen, enpresek sortu eta lehenengo urteetan normalean ez dituztelako mozkinak lortzen, baina ikaskuntza bultzatzen du eta administrazio-kostuak ekiditen ditu.

2. **KARGA-TASA MURRIZTUAK.**
Enplegua mantentzeagatik edo sortzeagatik karga-tasa murriztuak batez beste 25 langile baino gutxiago dituzten eta negozio-zifra garbia bost milioi eurotik behera duten erakundeentzako. **% 20ko tasa.**

3. **ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAKO AMORTIZAZIO BIZKORTUA.**
Finantza-egoera hobetzea eta inbertsio-aukerak indartzea.

4. **KENKARI HAUEI EUSTEA: ENPLEGUA, PRESTAKUNTZA, INGURUMENA, INBERTSIOA ETA MOZKINEN BERRINBERTSIOA.**

Enpleguari, prestakuntzari, inbertsioari, berrikuntzari eta ingurumenari lotutako kenkariek enpresa-lehiakortasuna mantentzen eta handitzen asko laguntzen dute, eta sozietateen gaineko zergak etorkizunean izango duen zerga-bilketarako ahalmena ziurtatzen dute.
Mozkinen berrinbertsioaren bidez inbertsioa sustatzea oso garrantzitsua da enplegua finkatzeko eta etorkizunean lurraldeko aberastasunari lagunduko diola bermatzeko.

5. **I+G+B JARDUERAK SUSTATZEKO ZERGA-TRATAMENDUA HOBETZEA**
I+G+B kenkariei esker, Gipuzkoak I+G+Bn gehien aurreratu duen lurraldea izaten jarraitzen du, EBren gainetik.
Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak (SPRI) txosten arrazoituak egiteak bere mugak ditu, eta egiaztapenerako beste mekanismo osagarri batzuk ezarri behar dira. Ezartzen bada kenkariekin batera erakunde homologatu baten egiaztagiria behar dela, egiaztapenaren kostuak kengarriak izan behar dute.

6. **NAZIOARTEKOTZEARI BURUZKO KENKARIA BERRESKURATZEA.**
Kanpoko merkatuak: dauden merkatu bakarrak.
Enpresei nazioartekotzen laguntzeko tresna guztiak jartzeko beharra dago: enpleguaren eta enpresaren salbamendua.

7. **ENPRESEN KAPITALIZAZIOA SUSTATZEA.**

8. **ENPRESEN TALDEKATZEA, DIBERTSIFIKAZIOA ETA SUSTAPENA SUSTATZEA**

9. **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN HARMONIZATUA DAGOEN SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA BAT ARAUTZEA.**